

HEZKUNTZAREN HISTORIA EUSKAL HERRIAN: IKASTOLA

Elbira Zipitriaren biografiarako jakingaiak:
Ikastola Donostian 1942-1969 urte bitartean

HISTORIA DE LA EDUCACION EN EL PAIS VASCO: LA IKASTOLA

Datos para la biografía de Elbira Zipitria:
La Ikastola en San Sebastian (1942-1969)

Xabier Aranburu Puente

Lan honen helburu nagusia Elbira Zipitriak euskarazko heziketa arloan buruturiko lanari buruzko informazioa biltzea da. Jaso eta agerkarian aurkezten den dokumentazioa grafikoa, idatzia eta, batez ere, ahozkoa da. 1942 eta 1969 bitarteko urteei dagokie gehien batean. Gerra ondoko euskarazko irakaskuntzaren historia dakarigute lehen orrialdeek, bildutako materialak oinarri hartuta. Garai honetan, berebiziko lana burutu zuen Elbira Zipitria Irastortza andereak, berak bultzatu bait zuen Donostian eta Gipuzkoan beste herri batzutako ikastolen aldeko mugimendua

El objetivo fundamental del presente trabajo es la recopilación de información acerca de la labor desempeñada por Elbira Zipitria en el campo de educación en euskara. La documentación recogida, y que se ofrece en la publicación, es de carácter gráfico, escrito y; sobre todo, oral y hace referencia, en su mayor parte, al período comprendido entre los años 1942 y 1969. A partir de ella se realiza, en las primeras páginas, la reconstrucción de la Historia de la docencia en lengua vasca durante la postguerra, período este en el que desempeñó un papel fundamental como impulsora del renacimiento de la Ikastola en San Sebastián y en otros lugares de Guipúzcoa la Señorita Elbira Zipitria Irastortza.

L'objectif essentiel du présent travail est la compilation d'information sur le travail développé par Mlle. Elbira Zipitria dans le domaine de l'éducation dans la langue Basque (Euskara). La documentation acquise, et qu'on montre dans cette publication, a aussi bien un caractère graphique comme écrit et surtout oral faisant davantage référence à la période des années 1942-1969. A partir de celle-ci on fait, dans les premières pages, la reconstruction de l'Histoire de l'enseignement en langue Basque pendant l'après-guerre. Dans cette période elle accomplit un rôle capital comme impulsive de la renaissance de l'Ikastola à San Sebastián et Guipúzcoa. Mlle. Elbira Zipitria Irastortza.

IRAKURLEARI OHARRA

Lan honen helburu nagusia, egun batean Ikastolaren mugimenduz egin beharko den Historiarentzat baliagarriak izan daitezken datuak biltzea da.

Lortutako berriek, 1942 eta 1969 urte bitartean Elbira Zipitria andereñoak Donostian burututako lanari buruz argia ematen digute.

Dokumentazioaren gehiengoa, Elbira Zipitria ezagutu zuten pertsonen adierazitako oroi-tzapenetaz osatzen da.

Agiriari aurkeztu baino lehen, 1942-1969 urteen arteko Donostiako Ikastolaren Historiaren laburpentxo bat egiten dut. Honetarako, kontsultatuak izan diren pertsonen emandako datuak alderatu behar izan ditut, nere ustez ziurrenak zirenak aukeratuz.

Bukatzeko, Karmele Esnal, Amale Arzelus, Mari Karmen Mitxelena, Elixabete Maiztegi, Faustina Karril, Itziar Arzelus, Ramon Labayen, Antonio Maria Labayen eta Karmen Sansine-nea, Jose Egia, Xabier Aizarna eta Gipuzkoako Irakaslegoaren Unibertsital Eskolaren laguntza eskertzen dut, hau gabe ezinezkoa izango bait zen orain aurkezten dudana lantxo hau buruztea.

ELBIRA ZIPITRIAREN BIOGRAFIARAKO JAKINGAIK: Ikastola Donostian 1942-1969 urte bitartean

1906. urteko maiatzaren 28an, gaueko ordubatean jaiotzen Zumaiaiko «Torrea» izeneko porlan edo zimentu olan, Elvira Justa izenarekin bataiatuko zuten umea. Billabonako Jacinto Zipitria Arregi jauna zen haren aita eta Maria Irastorza Tapia andere lazkaotarra, ama (1).

Bere haurtzaroaren berri handirik ez dago; bakarrik oso gazte zelarik Zumaia herritik Donostiara bizitzera igaro zela (2).

16 urtekin magisteritza ikasketak hasi zituen, garaian ohizkoa zen baino bi urte beranduago. 1922an hain zuzen, orduan 4 urteko iraupena zuen «Maestra de Primera Enseñanza» karrera ikasteko matrikulatu zen Donostian (3). Bere senidearen diru egoera lasaia ez omen zela eta, beka baten bidez ikasketak egin zituela esan didate eta argitaratua ikusi dut (4). Ezinezkoa gertatu zait puntu hau ziurtatzea: Gipuzkoako Irakaslegoaren Unibertsital Eskolako artxibategian Zipitria andereñoak beka bat izan zuela baiztatzeko duen agiririk ez dut aurkitu;

(1) Ikus, 51-53 orrialdeetan, bataio-agiria eta jaiotza-agiria.

(2) «Zipitria'tar Elbira "Andereñoa" omenaldia». Euskerazaintza'k. 17. orrialdean. SS 623/86.

(3) Elbira Zipitriak karreraren izandako nota, gai eta irakasleen zerrenda, 55-56 orrialdean.

(4) 3. elkarrizketa, 38 orrialdea. Baita ere, DEIA egunkarian argitaratua, 1982-12-28 datan, 11. orrialdean: «Jaiotzez zumaiaarra, aita argiña zuen eta beka baten bidez lortu zuen ikasle izateko estudioak egitea». Elbira Zipitriaren aita argiña bazen, zentzuzkoa da pentsatzea, beka baten bidez ikasi zuela karrera. Dena den eta testuan argitzen dudana bezala, Zipitria andereñoak beka bat lortu zuenik ezin izan dut baieztatu. Bestalde, bere aitaren ogibidea zein zen ez dago argi: 1989. urteko urtarrilean Antonio Maria Labayen jaunak, Elbiraren aita argiña zela adierazi zidan, horrela Elixabete Maiztegi andereak esandakoarekin eta DEIA egunkarian azaldutakoarekin bat etorri; Zumaiaiko bataiatuen 11. liburuan, 101. orrialdean, aldiz, zera dago: «Es hija legítima de D. Jacinto Zipitria y Arregui, natural de Villabona, en esta provincia, de profesión escribiente...». Azkenik, Elbira Zipitriaren Jaiotza agirian bere aita «jornalero»-a dela adierazten dela esan behar da.

bestalde Gipuzkoako Diputazioko 1921-1926 urte bitarteko Aktetan, magisteritza ikasteko dirulaguntzak ematen badira ere, ez da Elbira Zipitria aipatzen.

Ikasketak burutu eta gero, 1926. urtean irakaskintza lanetan hasten da Donostian, Muñotarren ikastolan. Migel Muñoa jaunaren euskal ikastetxea era honetara antolatzen zen 1924. urtetik aurrera: Donostiako Alde Zaharreko Juan de Bilbao kalean, 6 urte arteko neska-mutiltxoek ikasten zuten; egoitza honetan bi ziren lan egiten zuten andereñoak, horietako bat Elbira Zipitria zelarik. Mutilak 6 urte betetzen zutenean Muñoaren ikastolak Campanario kaleko etxe batean zituen ikasgela batzutura igarotzen ziren; hemen Elias Etxeberria, Ander Bereziartua eta Jon Jauregi ziren irakasle. Neskatoak berriz, Konstituzio enparantzako egoitzara joaten ziren, Consuelo Agirre andereñoarengana (5).

Irakaskintza lanetaz gain, Elbirak politika eta kultura munduan ekintzak aurrera eramaten ditu urte hauetan. «Emakume Abertzale Batza» eta «Euskaltzaleak» erakundeetako kidea (6), bere izakera indartsu eta gartsua erakutsi zuen elkarte hauen barnean (7).

1936. urteko guda hastean, Elbira Zipitriak muga gurutzatzen du, Iparraldeko Askain herrira abiatuz. Geroxeago Zibururaino heldu zen, bertan Tolosako Labayen-Sansinenea senidearekin elkartzen delarik, familiako Pilar Sansinenea bait zuen lagunmina. Toulouseko prefektok Saran zuen «Prefetenea» etxea izan zen senidearen egoitza berria. Hemen, 1939. urteko udazkenerate Antonio Maria Labayen eta Karmen Sansinenea emaztea bere bi seme Ramon eta Martinekin; Pilar Sansinenea eta Jesus Elosegi; Juan Migel Sansinenea, bere emaztea eta seme-alabak eta Elbira Zipitria bizi izan ziren. Senidearen osaba zahar bat, Tolosako Laskibar familiako hiru kide eta muga mendiz gurutzatzea lortu zuen Azkoitiako gudari bat onartu zituzten. Gainera, Zipitria andereñoaren anaiak denbora labur batez hauekin bizi izan zen eta Orixe idazleak bolara luzeak igaro zituen etxean (8).

Erbesteko urte hauek ez dute Elbira geldi erazten. Irakaskintza lanean jarraitzen du, Ramon eta Martin Labayen gazteei klaseak emanez. Gainera, Saran ere erbesteraturik aurkitzen zen Don Bernardo Urkia, Leaburuko apaizarekin eta Pilar Sansinenearekin batera, koro edo abesbatza bat antolatu zuen eta herriko neskatoekin poxpolinen talde bat eratu (9).

1939. urtearen azkenaldean, Saratik Donibane Lohitzunera igarotzen dira, erbestetik itzultzeko egunerarte, hemen bizitzeko. Labayen-Sansinenea senideak 1945. urtean muga gurutzatu zuen, eta Elbirak urte batzu lehenago egin zuela jakin arren, zehazki noiz izan zen ez dakigu. Badirudi, horrela adierazten bait dute jasotako berriek, 1942. urtean, Donostian aurkitzen zela, klaseak ematen (10). Dirudienez, aipatutako azken urte honetan, Donostiako Egia

(5) Idoia Estornes Zubizarretari esker lortutako datuak. Ikus baita ere:

- Mikele Errezola: «1937 aurreko ikastolen edestirako jakingaiak», «Gure Ikastola» liburuan, Jakin, 1972, 261-274 orrialdeak.

- Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco, «IKASTOLA» hitza, Mari Carmen Garmendiaren artikulua.

Gai honi buruz, nahiz eta Elixabete Maiztegi anderea (3. elkarrizketa, 39 orrialdea) eta Amale Arzelus anderea (2. elkarrizketa, 34 orrialdea), nik textoaan esandakoarekin bat ez etorri, goian aipatutako idaztietan lortutako datuak jarraitzea erabaki dut. Gainera, 1989. urteko urtarrian, Muñoaren ikastolako ikaslea izan zen Juan Aizpurua jaunarekin mantendutako hizketan, Juan de Bilbao kalean 6 urte arteko neska-mutilak ikasten zutela adierazi zidan.

(6) 3. elkarrizketa, 38 orrialdea:

«Zipitria'tar Elbire "Andereríoa" Omenaldia» Euskerazaintza'k, 142 orrialdea.

(7) 3. elkarrizketa, 39 orrialdea

(8) Hala adierazi zidan Ramon Labayen jaunak, 1989. urteko urtarrian mantendutako elkarrizketan. Datuek, Antonio Maria Labayen eta Karmen Sansinenearengatik baieztatutako izan ziren, 1989. urteko urtarrian

(9) Idem 8. oharra.

(10) 1. elkarrizketa, 29 orrialdea.

3. elkarrizketa, 39 orrialdea.

senidea Elbirarekin harremanetan jartzen da, honek etxeko Migel Mari mutil mongolikoari klaseak eman diezazkion. Zipitria andereñoak lan hau 25 urtez bete zuen. Klaseak egunero, goizeko 9tik 11etara ematen zizkion, Egiatarren etxean. Andereñoak, kultura orokorreko oinarri bat emateaz gain, Euskara eta Frantsesaren ezagupenean bideratu zuen Migel Mari (11).

Urte honetan ere, Mari Paz Sansinenea gaztearekin aritu zen. Baina Elbira Zipitriak jarraipena izango zuen taldetxo bat osatu nahi zuen. Horrela, 1943.ean, honoko ikasle hauek batu zituen Arriolatarren etxean: senide honetako seme eta alaba bat; Mari Coro Larrea, injinadore baten alaba eta Garayalde-Maiztegi senidearen seme zaharrena (12).

Urte bat beranduago, 1944.ean, Ascension Goenagaren etxean egiten du lana. Orain bost ikasle ditu: Itziar Goenaga Barrena, Ascension Goenagaren iloba; Mari Coro Larrea; Ana Maria Isasa; Garayalde-Maiztegiren senidearen seme zaharrena eta Gorka Leska Ezepeleta (13).

Egoera honetan, 1946.errete jarraitzen du, aipaturiko urtean Fermin Calbeton kaleko 26. zenbakiko bere etxean klaseak ematea erabakitzen duelarik.

Elbira Zipitriak aurrera zeraman lana, ezagunagoa gertatzen zen egunez egun, euskal kulturarenganako kezka zuten senideen artean. Ikasleen kopurua handitzen zihoanez, euskal irakaskuntzarako andereño berriak bilatu behar izan zituen. Hemen hasten da, Elbira Zipitriak gerraondoko ikastolaren mugimenduaren susperketan betetako lan garrantzitsua.

Hasera batean, ezagunak zituen Arzelustarrengana jo zuen laguntza bila. 1949.urtean, bere ikastolara Euskara oso ondo menderatu gabe heltzen zitzaizkion haurretaz arduratzea proposatu zion Amale Arzelusi. Amalek bere lana utzi eta neska-mutil hauen Euskara lantze eta hobetzeari ekin zion, San Jeronimo kaleko 20. zenbakiko bere etxean lehenik, geroago Colón Pasealekuko 9.era pasatzeko (14).

Urte bete beranduago, 1950.ean, Bitorene Arzelusekin jartzen da harremanetan Elbira. Bitorene, Amalaren izeba, gerraurreko andereñoa zen, Donostiako Etxaide kaleko «Arantzazuko Ama Birjinaren Ikastolan» lan egindakoa. Honi, berak Fermin Calbetoneko ikastolan erabiltzen zuen irakaskintza metodoa ikus eta ikas zezan proposatu zion, gero 3 eta 4 urtetako ikasleak har zitzan. Horrela Elbira, 5-9 urte bitarteko umetxoez arduratzera igaroko litzateke. Bitorenek baietza eman zuen, baina ikastaro berria hasteko zegoela, ideia utzi eta monja joatea erabaki zuen. Orduan Zipitria andereñoak, Itziar Arzelusen laguntza eskatzen du. Bitoreneren iloba eta Amalaren ahizpa den Itziarrek, magisteritzako karrera 1946. urtean bukatu zuenak, proposamena onartu zuen. 1950-51 ikastaroan, 3 eta 4 urtekoekin hasi zen lanean, San Jeronimo kaleko 23. zenbakiko gurasoen etxean. 1952-1953 ikasturteetik aurrera, Puerto kaleko 10. zenbakian eman zituen klaseak, hara bizitzera igaro bait zen (15).

Euskaraz egindako irakaskuntza poliki zihoan gauzatzen: 3 eta 4 urtetako haurtxoek, Itziar Arzelusekin ikasten zuten; 5 urte betetzean, Elbira Zipitriarengana joaten ziren, harekin 9 urte betearte; adina honekin, erdal ikastetxetan matrikulatzen ziren ingresoko kurtsoa egiteko. Bestalde, Euskara lantzea beharrezkoa bazen, Amale Arzelusengana jotzen zuten.

1953. urtetetik aurrera, Faustina Karril andereñoaren laguntza jasotzen du Elbirak. Faustinak, nahiz eta karreraz maestra izan ez, haur txikiekin gustora lan egingo lukela adierazi

(1) 3. elkarrizketa, 39 orrialdea.

4. elkarrizketa, 44 orrialdea.

Jose Egia, Migel Mariaren anaiak baietzatua. 1989. urteko urtarrian mantendutako elkarrizketan

(12) 3. elkarrizketa, 39 orrialdea.

(13) idem 12. oharra.

(14) 2. elkarrizketa, 34 orrialdea.

(15) Horrela adierazi zidan Itziar Arzelusek, 1989. urteko urtarrian

zion Zipitriari. Hiru hilabetez Elbiraren etxean irakaskintza metodoa ikasten aritu eta gero, Faustina Karrilek 3 eta 4 urtetako neska mutilentzat ikastola bat irekitzen du, Virgen del Coro kaleko 8. zenbakian alokatu zuen gela batean (16). Baina Faustinak berak adierazten zidan bezala, bere benetazko ikastola Urgull mendia zen. Hara abiatzen zen bere ikasleekin ahal zuen gehienetan; han, loreak eta txoriak kontatzen, ikasten zituzten haurtxoek beren lehenengo zenbakiak; udaberria edo gabon kantak, inguruko mendien izenak. San Sebastian egunaren bezperan, danborrada antolatzen zuten eta ikasturtea San Juan aldera amaitzen zen, Gazteluan egiten zuten aurreku eta jai batekin (17). Ekintza hauek, harridura sortzen zuten Donostiako Gazteluko bisitari atzerritar askorengan. Gutxi batzuk ere, egoeraz oharturik, andereñoaren lana admiratzen zuten. Hala ikus daiteke 1967. urtean alemaniar turista batek Faustina Karrili bidali zion gutun batean, guk 68 orrialdean jasotzen duguna.

Umetxoan (3 eta 4 urte) irakaskintza bideratua bazirudien ere, ez zen gauza bera gertatzen heldutxoanarekin. 1952-1953 ikasturtean, Karmele Esnalek eta Jone Forkadak, bi maestra gaztek, Elbira Zipitriaren ikastolan praktikak egiten dituzte. Fermin Calbeton kaleko etxe hartan, andereñoaren euskal irakaskintza metodoa ikasi zuten. Urte bete beranduago, Pedro Egaña kalean, 2. zenbakian, Karmele Esnalek ikastola berri bat zabaltzen du. 1957. urte inguruan, Buen Pastor enparantzako 18. zenbakira igarotzen da, gero Paseo de Olazabaleko egoitzan, Santo Tomas Lizeoa izango denaren hazia emaraziz (18).

1956.ean, Mari Karmen Mitxelenak egiten ditu Elbirarekin praktikak. Donostiako kaian ireki zuen, urte bete beranduago ikastola berria. Hemendik aurrera eta 1968 urterarte, Zipitria andereñoak, bere klaseak emateaz gain, euskal maestra gazteen prestakuntza lanetan dihardu. Ondoren, Elbirarekin ikasi eta gero ikastola berriak ireki zituzten andereñoen zerrenda aurkeztuko dut (19):

IZENA	URTEA	IKASTOLA
M ^a Carmen Lasarte	1957	Angel kaleko bere etxean zabaltzen du ikastola.
Conchi Beitia	1960	Pasaiaiko ikastola eratzen du.
Arantxa Arrazola	1961	Campanario kalean ikastola
Maritxu Marizkurrena	1962	Hernaniko «Urumea» ikastola eratzen du.
Izaskun Busto	1963	Juan Jose Prado 7. zenb., 4.na (Azpeitia kalea, gaur).
Koro Aldanondo	1964	Konstituzio plaza.
Miren Terese Aleman	1964	Antiguo eta Añorgan ikastola.
Arantxa Mendizabal	1965	Lasarteko ikastola eratzen du.
Begoña Goya	1968	Hernaniko ikastolan hasi zen lanean.

Gipuzkoako zenbait herritako ikastolak eratu zituzten andereñoak, Zipitriaren «eskolakoa» direla esango genuke, Elbiraren ikasle izandako Mari Karmen Mitxelenaren ikastolan ikasi bait zuten euskal irakaskintza metodoa. Hona hemen zerrenda (20):

(16) Horrela adierazi zidan Faustina Karrilek, 1989. urteko urtarrilan.

(17) 72, 73 orrialdetako argazkiak ikusi.

(18) 1. elkarrizketa, 29 orrialdea.

4. elkarrizketa, 45 orrialdea.

(19) 4. elkarrizketa, 45 orrialdea.

(20) 4. elkarrizketa, 45 orrialdea.

IZENA	IKASTOLA
Nekane Iturbe Feli Etxeberria Iñake Irastortza Maritxu Illarramendi	Elgoibarko ikastola eratu. Lazkaoko ikastola. Beasaingo ikastolan hasi zen lanean Añorgako ikastolan hasi zen lanean.

1968. urterarteko Donostiako ikastolaren Historia kronologikoa egin da orain arte. Datoren paragrafoetan, ikastoletako andereño hauek beren lana zein kondiziotan bete zuten deskribatuko dut laburki. Irakurleak gai honetan sakondu nahiko balu, aurrerago jasotzen diren elkarrizketen irakurketara gonbidatzen dugu.

1942-1968 garaiko ikastolak, etxe bateko gela bat besterik ez dira. Elbira Zipitria andereñoak, klaseak bere etxeko salan ematen zituen. Gela txiki hartan gainera, alkoba bat aurkitzen zen. Itxuraz, egongela normala zen, ohizko eskola bateko elementu bakarrak, harbela eta mahaia zirelarik. Harbela, jarri eta kendu egiten diren horietakoa; mahaia berriz, idazketa lanak egiteko zabalitzen zena, hormaren aurka jasotzen zen. Gainontzeko andereñoak ere, kondizio berdintsuetan aritzen ziren: norberaren etxeko gelaren bat erabiltzen zuten ikasgelatzat; irtenbide hau ezinezkoa gertatzen bazen, lokal txiki bat edo gelaren bat alokatzeko beharrean aurkitzen ziren (21).

Ikasle taldeak txikiak ziren. Ikusitako espazioaren urritasunak hala inposatzen zuen. Gainera, euskal ikastetxe baten izatea publikoki aitortu ezin zitekeenez, andereñoek klase partikularren itxurapean estaltzen zuten beren lana: garaian, legezkoa zen maestra titulodun bat, gehienez 10 ikasleaz osatutako talde batetaz arduratu zedin. Orduan, 10 ikasleko bi edo hiru talde desberdin onartzen zituen andereñoak, bakoitzarekin bi orduz egoten zelarik. Elbira Zipitriak, goizeko 9etatik 11etara Migel Mari Egari klasea ematen zion; eguerdiko 11etatik 1 etatarara, hamarreko talde batetaz arduratzen zen eta bazkalondoan beste hamarreko talde batetaz. Arratsean, berriz, pertsona helduei Euskara irakasten zien (22).

Irakaskintzarako materialaren urritasuna nabarmena zen baita ere. «Xabierto» (23) eta gerraurrean argitaraturiko gainontzeko euskal eskola-liburuak, ez ziren liburudendetan aurkitzen. Etxeetan gordeak ziren aleak erabiltzen ziren orduan edota idazteko makinaz hauen kopia egiten ziren (24). Egoera latz honek ez zuen Elbira izutu. Ezagutu zuten guztiek, jakinmina handiko emakumea bailitz deskribatzen dute; European, pedagogiaren arloan egiten ziren azken ikerketen berri edukitzeaz arduratzen zen eta Marsellan zuen ahizpa monja baten bidez, Frantziako heziketa modua sakonki ezagutu zuen (25). Guzti honen ondorioz, Ikastola, irakaskintza era berri batez jantzi zuen, guztiz iraultzailea, 50. hamarkadako Espainian erabiltzen zen pedagogiarekin alderatzen badugu (26).

(21) 1. elkarrizketa, 30 orrialdea.

2. elkarrizketa, 34 orrialdea.

4. elkarrizketa, 43 orrialdea.

70 orrialdeko argazkiak ikusi.

(22) 4. elkarrizketa, 46 orrialdea.

(23) Lopez Mendizabal, Ixak. «XABIERTO. Umiei euskaraz irakurtzen erakusteko idaztia» Ed. Lopez Mendizabal, imprenta, 1932.

(24) 1. elkarrizketa, 32 orrialdea.

(25) I. elkarrizketa, 32 orrialdea.

2. elkarrizketa, 35 orrialdea.

3. elkarrizketa, 40 orrialdea.

4. elkarrizketa, 44 orrialdea

(26) Gai interesgarri honetan sakontzeko, ikus elkarrizketak eta bereziki 4. elkarrizketa, 46-49 orrialdeak.

Elbiraren metodoa baikorra zen benetan. Adierazi den bezala, Zipitria andereñoak 5-9 urtetako haurrei irakasten zien. Heziketa, Euskara soilean egiten zen, baina 8 eta 9 urtetako umei gaztelaniar gramatika erakusten zien; hona hemen arrazoa: 9 urtekin, ikastola desberdinetako haurrek erdal ikastetxetara jotzen zuten, batxilergora igarotzeko Ingresoko azterketa prestatzeko kurtsoa egitearren. Gainera, erdal eskoletan onartuak izan zitezten, examina bat gainditu behar zuten. Gehienak, arazo berezirik gabe iristen ziren batxilergora, eta behin baino gehiagotan erdal ikastetxetako zuzendariak ikastoletako ikasleen maila gorena onetsi zuten (27).

Andereñoen lan kondizioen arloan, soldata, ikasle bakoitzeko jasotzen zen diru kopurua zela esan behar da. Hauek ugariak ez zirela kontutan hartu behar dugu eta gainera, andereño askok, diru kopuru horretatik zati bat ikasgelaren alokairua ordaintzeko erabiltzen zuten. Udarako partean, klaseak ematen ez zirenez, ez zuten kobratzen eta gutxi batzu ziren seguro soziala zutenak.

Orain arte deskribatutako egoera, 1968 eta 1969. urteetan aldatzen da. 1967-68 ikasturtean, «Cartilla» edo «Libro de Escolaridad» delakoa edukitzea, derrigorrezko baldintza bat bihurtzen da. Adierazi den bezala, ikastoletako haurrei, examina bat gainditzea eskatzen zitzaien erdal eskoletan onartuak izateko. Esandako ikastaroan, ikastolei, bere ikasleentzat lortu ez dezaketen kartila eskolarra exigitzen zaie. Bestalde, poliziak eta batez ere hezkuntzako inspektore edo ikuskatzaileek ikastola desberdinetara egiten dituzten erregistroak ugaritzen dira (28). Azkenik, 1968. urteko uztailaren 19an, Gipuzkoako gobernadore Zibilak, Oltra-Moltó jaunak, zabaltzen duen zirkular batean, legeztaio gabeko edozein hezkuntza erakunde edo eskolak lanean jarraitzeko, agintarien baimena eskuratu behar duela agintzen du. Hona hemen zirkularraren zenbait zati:

«Varios son los miles de niños que asisten a centros que escapan a todo control. Centros instalados, muchos de ellos en locales cuyas condiciones higiénico pedagógicas y cuya solidez y seguridad dejan mucho que desear, que se hallan regentados por personal carente no ya del correspondiente título académico, sino de la mas mínima preparación pedagógica y de la indispensable garantía sanitaria; centros que, por hallarse incapacitados para expedir el Libro de Escolaridad, cierran a sus alumnos la vía de acceso a la enseñanza y a la obtención del Certificado de Estudios Primarios; centros, en una palabra, que, por no ofrecer garantía ni solvencia alguna, no tienen razón de existir en estos tiempos en que las exigencias de tipo médico, sanitario y pedagógico son cada vez mayores. (...)

1º Queda terminantemente prohibido la apertura de nuevos centros de enseñanza primaria sin la correspondiente autorización. (...)

2º Los directores o responsables de los centros que funcionan actualmente sin la oportuna autorización, solicitarán con la máxima urgencia, la legalización de los mismos.» (29).

Elbira Zipitriari legeztaioaren bidea ez zitzaion atsegin: legeztaioarekin ikastolaren eta Euskararen eskubideak galeran aterako zirela pentsatzen zuen, baina ez zegoen beste irtenbiderik (30). Horrela, Miren Terese Alemanek, Koro Aldanondok, Mari Karmen Mitxelenak eta Elbirak, «Orixe» ikastola eratzea erabaki zuten. Euskal eskola baten legeztaipena lortzeko bide bakarra, hau Elizaren hezkuntza erakundetzat aurkeztea zen. Lau andereñoek, Donostiako Santa Maria eli-

(27) 3. elkarrizketa, 40 orrialdea.

4. elkarrizketa, 47 orrialdea.

(28) 4. elkarrizketa, 43 eta 49 orrialdeak.

(29) «Boletín Oficial de Guipuzcoa» 1968. urteko uztailak 19. 9. zenbakia, 58. orrialdea. Lan honetan 57 orrialdean.

(30) 4. elkarrizketa, 50 orrialdea.

zara jo zuten; bertako erretoreak berak, ikastola berriaren buru bezala agertzea onartu zuen eta elizaren atzekaldeko lokal batzuk eskeini zituen, han ikasgelak koka zitezten. Egoitzak behar zituen konpoketa lanak ordaintzeko, ikasleen gurasoek 800.000 pezeta ordaindu zituzten (31).

1968-69 ikasturteko lehenengo hiru hilabeteak, hau da, gabonak arte, Elbirak bere etxeko ikastolan igaro zituen. Abenduaren 6an, Santa Maria Elizako erretoreak, Jose Elgarresta Iturbe jaunak, ikastola berria zabaltzeko beharrezkoak ziren eskabide eta dokumentazioa aurkeztu zuen hezkuntza delegazioaren aurrean (ikus 59. orrialdea). Esandako ikasturteko bigarren hiru hilabeteak, Elbirak eta Miren Terese Alemanek, Felitxu Erasok, frantseseko andereñoak Virgen del Coro kaleko 5. zenbakian zituen lokaletan eman zituzten, Mari Karmen Mitxelena eta Koro Aldanondok oraindik konpondu gabeko Santa Maria elizako lokaletara igaro zirelarik. Udaberri-rirako, laurak aurkitzen ziren jadanik lokal hauetan.

Ikastaroa bukatzeko zegoela, 1969. urteko ekainean, hezkuntzako ikuskatzailea ikastolara ino hurbildu zen. Egoitzak zituen kondizioak eta erabiltzen zen sistema pedagogikoa aztertu eta gero, ikasleen ezagutza maila oso ona zela aitortu ondoren, hauen «Formación del Espíritu Nacional» delakoaren egoera onartezina zela adierazi zuen. Ikastolaren aurkako txostena aurkeztuko zuelaren susmoan, ikasleen gurasoen ordezkariak ikuskatzailearekin elkarrizketatu ziren, haurtxoen politika heziketaren egoera bere ardurapean hartzen zutela adieraziz. Legez: tapena ukatua izango zela pentsatzen zenean, uztailaren 22an hezkuntza ministeritzak bialduta gutun batean, ikastola berriko konpoketa lanak bukatu arte legeztazioaren prosezuan aurrera egin ez zitekeela adierazten zen. Azkenik, 1970. urteko irailaren 8an legeztapen ofiziala eskuratu zuten (ikus 65 orrialdea) (32).

«Orixe» ikastola 80 ikaslekin hasi zen eta aipatutako lau andereñoekin. Hasieran, lehen bezala, 9 urte arteko hezkuntza eskeintzen zuen, hau da, Oinarrizko Heziketa Orokorreko 3. kurtsoraino. Poliki poliki, eta umeen kopurua gehitzen zihoan neurrian, 4. eta 5. kurtsoak zabaldu ziren. Azkenik, O.H.O.-ko 8 mailak ematea lortu zen (33).

1971. urtean Elbirak 65 urte zituelarik, «Orixe» ikastola utzi zuen. Jakin izan dudanez, bere bizitzaren azken urteetan, depresio gogorrak sufritzen zituen. Dirudienez, Euskara Batuaren inguruan sortutako eztabaidek suntsitzen zuten. 1982.ean, bere lagun talde batek, egunero berarekin bizpahiru ordu pasatzea erabaki zuen. Elbirak ideia onartu zuen baina handik egun gutxitara Gipuzkoako Ospitalera eraman behar izan zuten. Bisita egun batean, Elbiraren gelan sartu aurretik, honela esan zion erizainak Elixabete Maiztegi andereari «no se cura porque no quiere, casi no come...». Abenduaren 26an, Elixabete Maiztegiarekin Mari Koro Etxegoien hurbildu zen Ospitaleraino. Gela barruan, hitzegiteko gogorik ez zuela adierazi zuen Elbirak eta kapelaua deitzeko eskatu. Jaunartu nahi zuen. «Baina lehen hartu duzu eta» adierazi zion apaizak eta Elbirak «baña biatiko bezela bi aldiz artu diteke eta ni iltzera nijoa». Handik hiru ordutara hil zen (34).

(31) 4. elkarrizketa, 50 orrialdea.

(32) 4. elkarrizketa, 50 orrialdea.

Gai honi buruz, Karmele Esnal andereñoak (1. elkarrizketa, 33 orrialdea) beste batzuren artean, ikastolen aurkako eraso gogorra, Manzanos inspektorea erailketaren kontrako erantzuna izango ote zelaren ideia proposatzen du. Gaiari sakondu gabe, zera esango dut: polizia-aren inspektorea zen Meliton Manzanos Gonzalez, Irunen hil zen 1968. urteko abuztuaren 2an, eta legeztazio gabeko heziketa erakundek lanean jarraitzeko, agintearen baimena eskuratzera behartzen duen zirkularra, Oltza-Moltó jaunak emana, 1968. urteko uztailak 15 datakoa da.

(33) 4. elkarrizketa, 50 orrialdea.

(34) 3. elkarrizketa, 41 orrialdea.

NOTA PREVIA ACLARATORIA

El objetivo primero y fundamental del presente trabajo es la recogida de datos que puedan ser utilizados un día en la realización de la Historia del fenómeno de la Ikastola.

La información recopilada se refiere fundamentalmente a la labor desempeñada por la andereño Elbira Zipitria entre los años 1942 y 1969 en San Sebastián.

La documentación obtenida es, en su mayor parte, de carácter oral. Está constituida ésta por la vivencias y los recuerdos de personas que conocieron de cerca a la señorita Zipitria.

En las páginas anteriores a la presentación de los documentos, realicé un primer esbozo de la Historia de la Ikastola en San Sebastián entre los años 1942 y 1969 en la que tan activamente participó Elbira Zipitria. Para ello, he tenido que contrastar los datos (contradictorios entre sí algunos de ellos) aportados por las personas entrevistadas y elegir los que a mi juicio resultan más verosímiles.

No me resta más que agradecer sinceramente la amabilidad de Karmele Esnal, Amale Arzelus, Mari Carmen Michelena, Elixabete Maiztegui, Faustina Carril, Itziar Arzelus, Ramon Labayen, Antonio María Labayen y Carmen Sansinenea, Jose Eguia, Xabier Aizarna y la Escuela Universitaria de Magisterio de Guipúzcoa, sin cuyos testimonios y ayuda hubiera sido imposible la realización de este pequeño estudio.

DATOS PARA UNA BIOGRAFIA DE ELBIRA ZIPITRIA: La Ikastola en San Sebastián (1942-1969)

El día 28 de mayo del año 1906, nació en Zumaya, a la una de la madrugada, en la fábrica de cemento de Torrea, una niña, a la que bautizaron, dos días más tarde, con el nombre de Elvira Justa. Era su padre Jacinto Cipitria Arregui, de Villabona y María Irastorza Tapia su madre, natural de Lazcano (1).

Poco se sabe con certeza de su niñez y juventud, salvo que debió abandonar Zumaya siendo muy niña, para pasar a vivir a San Sebastián (2).

Comenzó los estudios de magisterio a los 16 años, dos años más tarde de lo habitual para aquella época. Efectivamente, en 1922, se matriculó para cursar la Carrera, de 4 años de duración entonces, de Maestra de Primera Enseñanza en San Sebastián (3). Me han referido y también lo he visto publicado, que teniendo en cuenta los escasos medios económicos de su familia, pudo estudiar la Carrera de Magisterio gracias a una beca (4). Ciertamente, no

(1) Vide certificado de bautismo y partida de nacimiento en pag. 51-53.

(2) «Zipitria'tar Elbira "Andereñoa" omenaldia». Euskerazaintza'k. 17. orrialdean. SS 623/86.

(3) En pag. 55-56, listado con los cursos, asignaturas, profesoren y calificaciones obtenidas por la señorita Elbira Zipitria. (datos facilitados por la secretaria de la Escuela Universitaria de Magisterio de Guipúzcoa).

(4) Entrevista 3, pags. 38. También, publicado en el diario DEIA 1989-12-28 pag 11: «jaiotzez zumaiarra, aita argiña zuen eta beka baten bidez lortu zuen irakasle izateko estudioak egitea». A este respecto, parece lógico pensar que, si como dice la nota periodística, el padre de Elbira Zipitria era cantero de profesión, efectivamente tuviera necesidad de pedir una beca para realizar los estudios universitarios. El tema, de todas formas, no queda claro. Por un lado, como digo más adelante en el texto, me ha sido imposible confirmar el disfrute de una beca por parte de la señorita Zipitria. Por otro lado, la profesión de su progenitor queda también

me ha sido posible confirmar este extremo: en el archivo de la Escuela de Magisterio no he hallado ningún certificado ni documento que confirme el disfrute de una beca por parte de la señorita Zipitria; tampoco en las Actas de la Diputación de Guipúzcoa de los años 1921 a 1926 en las que se destinan partidas presupuestarias para concesión de becas a estudiantes de Magisterio, aparece citada la interesada.

Terminados los estudios en el año 1926, comienza su labor profesional en San Sebastián, en la ikastola patrocinada por el señor Don Miguel Muñoa. La ikastola de Muñoa estaba organizada, a partir de 1924, de la siguiente manera: en el local de la calle Juan de Bilbao de la Parte Vieja donostiarra recibían clase los niños y niñas menores de 6 años. Estaban atendidos por dos profesoras, una de las cuales era Elbira Zipitria. Al cumplir los 6 años, los niños pasaban a unas aulas que tenía la ikastola del señor Muñoa en la calle Campanario. Trabajaban como docentes aquí, Elías Echeverría, Ander Bereciartua y Jon Jauregui. Las niñas, por el contrario, estudiaban con la señorita Consuelo Aguirre en un local de la Plaza Constitución (5).

Durante estos años Zipitria compagina su quehacer en el campo de la educación en Euskara con la actividad político-cultural. Elbira pertenecía a las organizaciones «Emakume Abertzale Batza» y «Euskaltzaleak» (6). En el seno de ellas dio muestras de su carácter fuerte y emprendedor, mostrándose exigente e implacable más con sus correligionarios que con sus adversarios políticos (7).

Al estallar en 1936 la guerra civil, Elbira Zipitria cruza la frontera para refugiarse en el País Vasco-francés. Parece ser que primeramente residió en la localidad de Askain para pasar posteriormente a Ziburu, donde fue acogida en el seno de la familia Labayen-Sansinenea de Tolosa, uno de cuyos miembros, Pilar Sansinenea, era íntima amiga suya. Posteriormente pasaron a residir a Sara, a la casa denominada «Prefetenea», pues pertenecía al prefecto de Toulouse. Allí convivieron, hasta el otoño de 1939, el matrimonio Antonio María Labayen y Carmen Sansinenea, con sus dos hijos Ramón y Martín; Pilar Sansinenea y Jesús Elósegui; Juan Miguel Sansinenea y su esposa con sus hijos y Elbira Zipitria. Acogieron además, a un tío anciano de la familia, a tres miembros de la familia Lasquibar de Tolosa y a un gudari de Azkoitia que había logrado cruzar la frontera por monte. El hermano de Elbira vivió breve tiempo con ellos y Orixe, el escritor, pasó largas temporadas en aquella residencia (8).

en suspenso: Don Antonio María Labayen, en entrevista personal realizada en enero de 1989 me refirió que el padre de Elbira Zipitria era albañil, trabajador de la construcción; esta declaración, junto con la de Elixabete Maiztegui, corroboran la nota periodística: por el contrario, en el libro nº 11, pag. 101 reverso de bautizados de la parroquia de Zumaya, en el acta de bautismo se lee: «Es hija legítima de Don Jacinto Zipitria y Arregui, natural de Villabona, en esta provincia, de profesión escribiente...». Finalmente, en la partida de nacimiento (Registro Civil) se afirma que Don Jacinto Zipitria y Arregui es de profesión jornalero.

(5) Datos facilitados por Idoia Estornes Zubizarreta. Vide además:

- Mikel Errezola: «1937 aurreko ikastolen edestirako jakingaiak» en «Gure Ikastola» Jakin. Ed. Franciscana Aranzazu, 1972, pags. 261-274.

- Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco, voz «IKASTOLA». Artículo de Mari Carmen Garmendia

A este respecto, aunque Doña Elixabete Maiztegui (Entrevista 3, pag 39) y Doña Amale Arzelus (entrevista 2, pag 34) refieren datos diferentes a los expresados por mí en el texto, me inclino por seguir lo expuesto en las dos publicaciones arriba mencionadas. Además, en entrevista mantenida en enero de 1989 con el señor Don Juan Aizpurua, alumno de la ikastola de Muñoa, me confirmó que en la calle Juan de Bilbao estudiaban niños y niñas hasta la edad de 6 años.

(6) Entrevista 3, pag 38.

Varios «Zipitria'tar Elbire "Andereñoa" Omenaldia» Euskerazaintza'k, pag. 142

(7) Entrevista 3, pag 39.

(8) Así me lo refirió Ramon Labayen en entrevista personal realizada en enero de 1989. Los datos fueron confirmados posteriormente por Don Antonio María Labayen y Carmen Sansinenea.

Los años de destierro fueron también años de actividad para Elbira Zipitria. Continuó su labor docente impartiendo clases a los jóvenes Ramón y Martín Labayen. Además, junto con Pilar Sansinenea y Don Bernardo Urkia, el cura de Leaburu que también se encontraba refugiado en Sara, organizó un coro e impulsó la creación de un grupo de «poxpoliñas» entre las jóvenes del pueblo (9).

A finales del año 1939, dejaron Sara y marcharon a vivir a San Juan de Luz, hasta el día del retorno del exilio. La familia Labayen-Sansinenea cruzó la frontera en 1945, y aunque sabemos que Elbira lo hizo unos años antes, no podemos precisar la fecha exacta. Lo que sí parece claro, ya que así lo atestiguan la mayoría de los testimonios, es que ya, en el año 1942, se encontraba en San Sebastián y trabajando como maestra (10).

Efectivamente, parece ser que en 1942, la familia Eguia de San Sebastián contacta con Elbira y le ofrece dar clases particulares al joven Miguel María, hijo mongólico del matrimonio. Esta labor la desempeñaría por espacio de 25 años. Las clases las impartía de 9 a 11 de la mañana, todos los días en el domicilio de los Eguia. Elbira proporcionó a Miguel Mari una base de cultura general, a la vez que le inició en el conocimiento del Euskara y el Francés (11).

Aquel año también dio clases particulares a Mari Paz Sansinenea. Pero la señorita Zipitria deseaba formar un grupo de alumnos con el cual poder desarrollar una labor continuada. Así, en 1943, reunió en el domicilio de los Arriola los siguientes alumnos: un hijo y una hija de la familia; Mari Coro Larrea, hija de un ingeniero y el hijo mayor del matrimonio Garayalde-Maiztegui (12).

Un año más tarde, en 1944, imparte las clases en casa de Ascensión Goenaga. Reune ahora a 5 alumnos: Itziar Goenaga Barrena, sobrina de Ascensión Goenaga; Mari Koro Larrea; Ana María Isasa; el hijo mayor del matrimonio Garayalde-Maiztegui y Gorka Leska Ezpeleta (13). Esta situación continúa hasta el año 1946, en el que Elbira decide comenzar a desarrollar su labor docente en su domicilio de la calle Fermín Cabeton, número 26.

El trabajo de la andereño Elbira iba siendo cada vez más conocido dentro del círculo de familias preocupadas y vinculadas a la cultura vasca. El número de alumnos comenzaba a aumentar de año en año, por lo que se vio en la necesidad de incorporar a la docencia en Euskara a nuevas maestras. Comienza aquí, la gran labor de Elbira Zipitria como impulsora y creadora del movimiento de la Ikastola de postguerra.

Primeramente recurrió a la familia Arzelus, con la cual le unía una gran amistad. Así, en 1949 propuso a Amale Arzelus que se hiciera cargo de los niños que sin conocer bien el Euskara acudían a su ikastola. Amale dejó su trabajo y comenzó a desempeñar la labor de perfeccionar el idioma de estos niños en su domicilio de San Jeronimo nº 20 primero y de Paseo de Colón nº 9 después (14).

Un año más tarde, en 1950, Elbira solicitó la ayuda de Bitorene Arzelus, tía de Amale y andereño de preguerra que había impartido clases en la «Arantzazuko Ama birginaren Ikastola» de la calle Echaide de San Sebastián. Le propuso a ésta que asistiera durante unos me-

(9) Idem nota 8.

(10) Entrevista 1, pag. 29.

Entrevista 3, pag. 39.

(11) Entrevista 3, pag. 39.

Entrevista 4, pag. 44.

También confirmado por Don Jose Eguia, hermano de Miguel Maria, en entrevista de enero de 1989.

(12) Entrevista 3, pag. 39.

(13) idem nota 12.

(14) Entrevista 2, pag. 34.

ses a sus clases de Fermin Calbetón a fin de aprender su método pedagógico para posteriormente hacerse cargo de los niños de 3 y 4 años, con lo que Elbira pasaría a enseñar a los de 5 a 9. Bitorene Arzelus aceptó en principio, pero pocas semanas antes de iniciarse el nuevo curso escolar, decidió abandonar la idea para seguir la vida religiosa como monja. Recurrió entonces Elbira a Itziar Arzelus, sobrina de Bitorene y hermana de Amale, que había terminado la Carrera de Magisterio en 1946. Itziar aceptó la propuesta y comenzó a dar clases a los niños de 3 y 4 años en el domicilio de sus padres de la calle San Jerónimo nº 23, 3º piso, en el curso 1950-51. En 1952-53 trasladaría su residencia, y con ella su ikastola, a la calle Puerto nº 10, 5º piso (15).

La enseñanza en Euskara comenzaba a ser una realidad en San Sebastián: los niños de 3 y 4 años estudiaban con Itziar Arzelus, al cumplir los 5 años pasaban a estudiar con Elbira Zipitria, con quien estaban hasta los 9, edad con la que pasaban a los colegios castellanos para realizar el curso de ingreso; por el contrario, si era necesario perfeccionar el Euskara, asistían a las clases de Amale Arzelus.

En el año 1953 se incorpora al movimiento de la ikastola la señorita Faustina Carril. Esta se pone en contacto con Elbira a quien manifiesta que aunque no posee el título de Magisterio siente una gran atracción por la docencia de los más pequeños. Elbira le anima a llevar adelante la idea: tras 3 meses de asistir a sus clases y aprender su método didáctico, Faustina Carril abre una ikastola para niños de 3 y 4 años en una habitación que había alquilado encima de la sociedad «Aizepe» de San Sebastián (calle Virgen del Coro nº 8) (16). Aun y todo, como nos comentaba la propia Faustina Carril, su verdadera ikastola era el monte Urgull. Allí iba con sus alumnos siempre que el tiempo lo permitía; allí iniciaba a los pequeños en los números contando pájaros y flores, a cantar canciones de navidad o de primavera, a aprender los nombres de los montes de alrededor. En vísperas del día de San Sebastián organizaban una gran tamborrada y terminaba el curso por San Juan, con un aurreku y una merienda en el Castillo (17). Estas escenas causaban sorpresa y admiración en muchos turistas que visitaban Urgull. Algunos de ellos se percataban de la situación y reconocían la labor de la maestra. Así lo demuestra una carta de 1967 de una visitante alemana que Faustina Carril conserva con gran cariño y que se reproduce en la página 68.

Si bien las necesidades de atención a los más pequeños parecían ya resueltas, no ocurría lo mismo con los mayores. En el curso 1952-53 dos maestras recién salidas de la Escuela de Magisterio, Karmele Esnal y Jone Forcada, realizan prácticas en la ikastola de Elbira Zipitria. En la sala-aula de aquel piso de Fermin Calbetón, aprendieron la metodología de la maestra. El curso siguiente, Karmele Esnal abre en la calle Pedro Egaña nº 2, 2º piso una nueva ikastola. En torno a 1957 se traslada a la Plaza del Buen Pastor nº 18, 1º y posteriormente al Paseo de Olazabal, creando allí el primer embrión de lo que luego sería la ikastola Liceo Santo Tomas (18).

En 1956 es la señorita Mari Carmen Michelena la que realiza las prácticas con Elbira y organiza un año más tarde una ikastola en el Muelle nº 1 de San Sebastián. De aquí en adelante y casi ininterrumpidamente hasta el año 1968, Elbira Zipitria, además de impartir las clases, recicla y forma a jóvenes maestras para capacitarlas en la docencia en Euskara. A conti-

(15) Así me lo refirió Itziar Arzelus en entrevista personal de enero de 1989.

(16) Así me lo refirió Faustina Carril en entrevista personal en enero de 1989

(17) Vide fotografías pag. 72, 73.

(18) Entrevista 1, pag. 29.

Entrevista 4, pag. 45

nuación, se hace una relación de las señoritas que tras realizar las prácticas con Elbira inauguraron nuevas ikastolas (19):

NOMBRE	AÑO	IKASTOLA
M ^a Carmen Lasarte	1957	Inaugura Ikastola en su domicilio de Calle Angel
Conchi Beitia	1960	Funda Ikastola de Pasajes
Arantxa Arrazola	1961	Ikastola en la Calle Campanario
Maritxu Marizkurrena	1962	Funda Ikastola Urumea de Hernani
Izaskun Busto	1963	Juan Jose Prado n ^o 7, 4 ^o (Hoy, c/ Azpeitia)
Koro Aldanondo	1964	Plaza de la Constitución
Miren Terese Aleman	1964	Ikastola en el barrio del Antiguo y en Añorga
Arantxa Mendizabal	1965	Funda Ikastola de Lasarte
Begoña Goya	1968	Ingresó en la Ikastola de Hernani

Algunas de las Ikastolas del interior de la Provincia también deben en parte su existencia a Elbira, ya que sus fundadoras se introdujeron en el mundo de la enseñanza en Euskara aprendiendo el método en las clases de Mari Carmen Michelena, como se ha dicho antes, maestra-alumna de Zipitria en 1956. He aquí la relación (20):

NOMBRE	IKASTOLA
Nekane Iturbe	Funda Ikastola de Elgoibar
Feli Etxeberria	Ikastola de Lazkao
Iñake Irastortza	Continúa la labor en la Ikastola de Beasain
Maritxu Illarramendi	Continúa la labor en la Ikastola de Añorga

Se ha hecho hasta ahora un recorrido, fundamentalmente cronológico, del desarrollo de la Ikastola en la zona de San Sebastián, hasta el año 1968. En los siguientes párrafos describiré brevemente, las condiciones materiales en las que estas profesoras llevaron adelante su trabajo, remitiendo al lector que desee profundizar en el tema a las entrevistas que se reproducen más adelante,

Lo que venimos denominando Ikastola, para el período 1942-1968, no era más que un cuarto o una sala de una vivienda. Efectivamente, la Andereño Elbira Zipitria impartía sus clases principalmente en la sala de su domicilio de la calle Fermín Cabeton. Era una estancia reducida que albergaba además, una alcoba o dormitorio. Los únicos elementos de una escuela tradicional eran una pizarra portátil de pequeñas dimensiones y una mesa recogida contra la pared, que se bajaba únicamente cuando había que realizar ejercicios de escritura. La mayoría de las demás andereños tenían las mismas condiciones materiales; unas impartían las clases en cuartos de los domicilios familiares mientras otras tenían que alquilar algún pequeño local o habitación (21).

(19) Entrevista 4, pag. 45.

(20) Entrevista 4, pag. 45.

(21) Entrevista 1, pag. 30.

Entrevista 2, pag. 34.

Entrevista 4, pag. 43.

Vide fotografías, pag. 70.

Los grupos eran reducidos, debido a la falta de espacio y fundamentalmente a requisitos legales. La imposibilidad de declarar públicamente la existencia de una escuela vasca hacía que las profesoras encubrieran su labor bajo la forma de las clases particulares: en la época estaba permitido que una maestra titulada enseñara a un número de alumnos no superior a 10. Las andereños organizaban entonces, dos o tres grupos de 10 alumnos cada uno, a los que atendían por espacio de dos horas al día. Así, Elbira Zipitria daba clase a Miguel Maria Eguia de 9 a 11 de la mañana; de 11 a 1 del mediodía enseñaba a un grupo de 10 niños y a la tarde a primera hora a otra decena. Además, al anochecer, solía reunirse con un grupito de adultos a los que enseñaba Euskara (22).

El material didáctico era excasísimo. Los pocos libros de texto en Euskara, entre los que destacamos «Xabierto» (23), eran los editados en el período de la preguerra y habían desaparecido del circuito comercial. Los alumnos utilizaban los textos que habían conservado sus familias o por el contrario, hacían copias mecanografiadas de los mismos (24). Lo precario del material didáctico no asustó a Elbira Zipitria. Todos los testimonios coinciden en señalar el carácter inquieto y despierto de la andereño, que procuraba estar siempre al día de las últimas novedades pedagógicas europeas: estudiaba y reflexionaba sobre las experiencias didácticas de otros países y gracias a una hermana monja que residía en Marsella llegó a conocer perfectamente el sistema educativo francés (25). Fruto de todo ello, implantó un método vivo y participativo, absolutamente revolucionario si lo comparamos con la pedagogía española de la década de los 50 (26).

Este método de Elbira, debía de ser, ciertamente, muy eficaz. Como ya se ha apuntado anteriormente, Zipitria enseñaba a los jóvenes comprendidos entre los 5 y los 9 años. La enseñanza se realizaba íntegramente en Euskara, pero a los alumnos de 8 y 9 años enseñaba la gramática castellana y esto por una sencilla razón: con 9 años los alumnos de las distintas ikastolas marchaban a los colegios castellanos donde tenían que superar un examen de admisión, luego hacer el curso preparatorio para posteriormente realizar el examen de ingreso al bachillerato. La mayoría de ellos pasaban las pruebas sin ninguna dificultad, y en mas de una ocasión, los directores de los colegios felicitaron a las andereños por el nivel de sus alumnos (27).

Finalmente me referiré a las condiciones laborales para señalar que el único sueldo era lo percibido por el cobro por cada alumno, parte de lo cual había que destinar al pago del local si este era alquilado; que en los meses de verano, al no haber clase, no se cobraba y que la mayoría de las profesoras no disfrutaban de ningún seguro social.

Todo este estado de cosas cambia entre los años 1968 y 1969. En el curso 1967-68 comenzó a pedirse por parte de las autoridades, la llamada «Cartilla o Libro de Escolaridad». Hasta la fecha, como se ha referido, el único requisito para pasar a los colegios castellanos, era la superación del examen de admisión en los mismos. Ese año se hizo imprescindible la

(22) Entrevista 4, pag. 46.

(23) Lopez Mendizabal, Ixak. «XABIERTO. Umiei euskaraz irakurtzen erakusteko idatzia» Ed. Lopez Mendizabal, imprenta, 1932.

(24) Entrevista 1, pag. 32.

(25) Entrevista 1, pag. 32.

Entrevista 2, pag. 35.

Entrevista 3, pag. 40.

Entrevista 4, pag. 44.

(26) Para profundizar en este interesante tema, vide entrevistas y en especial, Entrevista 4, pag. 46-49.

(27) Entrevista 3, pag. 40.

Entrevista 4, pag. 47.

presentación de la Cartilla para poder realizar el curso preparatorio, Cartilla que las ikastolas no estaban en condiciones de proporcionar. Por otro lado, los registros policiales y sobre todo de los inspectores de educación a las ikastolas se hicieron frecuentes (28). Finalmente, el 19 de julio de 1968, el Gobernador Civil de Guipúzcoa, señor Oltra-Moltó, publicó una circular en la que tras declarar que «Varios son los miles de niños que asisten a centros que escapan a todo control. Centros instalados, muchos de ellos en locales cuyas condiciones higiénico pedagógicas y cuya solidez y seguridad dejan mucho que desear, que se hallan regentados por personal carente no ya del correspondiente título académico, sino de la más mínima preparación pedagógica y de la indispensable garantía sanitaria; centros que, por hallarse incapacitados para expedir el Libro de Escolaridad, cierran a sus alumnos la vía de acceso a la enseñanza y a la obtención del Certificado de Estudios Primarios; centros, en una palabra, que, por no ofrecer garantía ni solvencia alguna, no tienen razón de existir en estos tiempos en que las exigencias de tipo médico, sanitario y pedagógico son cada vez mayores» disponía lo siguiente: «1^º- Queda terminantemente prohibida la apertura de nuevos centros de enseñanza primaria sin la correspondiente autorización. (...). 2^º Los directores o responsables de los centros que funcionan actualmente sin la oportuna autorización, solicitarán con la máxima urgencia, la legalización de los mismos.» (29).

El proceso de legalización era obligado. A Elbira no gustaba la idea; sospechaba que con la legalización podría sobrevenir un mayor control gubernamental que perjudicara la docencia en Euskara (30). Pero como queda claro, no había otra alternativa. Así, Miren Terese Aleman, Koro Aldanondo y Mari Carmen Michelena junto con Elbira Zipitria decidieron fundar la ikastola «Orixe». La única forma de afrontar con ciertas garantías de éxito la legalización de una escuela vasca, era presentar a ésta como a una institución docente de la Iglesia. Las cuatro andereños acudieron a la parroquia de Santa María de San Sebastián cuyo párroco, D. Jose Elgarresta Iturbe, aceptó convertirse en el titular de la nueva ikastola.

Sus aulas estarían en unos locales de la trasera del templo. Los trabajos de acondicionamiento de los mismos costaron 800.000 pesetas, que abonaron los padres de los alumnos (31).

El primer trimestre del curso escolar 1968-69 lo pasó Elbira en la ikastola de su domicilio. El 6 de diciembre, el párroco de Santa María presentaba ante la delegación de educación la solicitud, junto con la documentación exigida, para la apertura de la nueva «Escuela Parroquial de Santa María» (nombre oficial que se le dió a la naciente ikastola «Orixe»). (Vide pág, 59) Durante el segundo trimestre del curso mencionado, tanto Elbira Zipitria como Miren Terese Aleman impartieron sus clases en los locales de la andereño Felitxu Eraso, profesora de Frances (Virgen del Coro, nº 5), mientras que Mari Carmen Michelena y Coro Aldanondo se acomodaban en los locales aun en obras de la parroquia de Santa María, a los que pasaron las dos primeras andereños por primavera.

En junio de 1969, faltando pocos días para el término del curso, recibieron la visita del inspector de educación, Tras un examen rigurosísimo de las instalaciones y del método didáctico que se seguía, concluyó que si bien el nivel de conocimientos del alumnado y la pedagogía aplicada eran muy satisfactorios, «La Formación del Espíritu Nacional», resultaba inaceptable. Temiendo un informe desfavorable por parte del inspector, una representación de los padres de alumnos se entrevistó con este, manifestándole que el colectivo de padres asumía el

(28) Entrevista 4, pag. 43 y 49

(29) Boletín Oficial de Guipuzcoa, Viernes 19 de julio 1968, nº 9, pag. 58. Reproducido en pag. 57 del presente trabajo.

(30) Entrevista 4, pag. 50.

(31) Entrevista 4, pag. 50.

estado de la formación política de los niños y que se responsabilizaba de la misma. Cuando se esperaba la orden de cierre del centro, una carta del Ministerio de Educación y Ciencia con fecha de 22 de julio de 1969 informaba que quedaba en suspenso la tramitación del expediente hasta que no terminaran las obras de acondicionamiento de los locales. Finalmente, el 8 de septiembre de 1970 se recibía la ansiada autorización de apertura (vide pág. 65) (32).

La ikastola «Orixe» comenzó contando con 80 alumnos que eran atendidos por las cuatro andereños ya citadas. Al principio, siguió cubriendo la enseñanza hasta los 9 años, lo que venía a corresponder con el 3º curso del nuevo plan (3º de E.G.B.). Poco a poco, aumentó el número de estudiantes a la vez que se ampliaba la oferta educativa al 4º y al 5º curso. En una etapa posterior, lograron cubrirse los 8 cursos de la E.G.B. (33).

En 1971, a los 65 años de edad, Elbira dejó la ikastola «Orixe», Me han referido que en los últimos años de su vida padeció fuertes depresiones. Parece ser que las polémicas suscitadas en torno al Euskara Batua eran una de las causas principales de éstas. En el año 1982, un grupo de amigos decidió acudir todos los días junto a ella, a fin de animarle y prestarle compañía. Elbira aceptó, pero a los pocos días tuvo que ser ingresada en el Hospital Provincial de Guipúzcoa. Un día de visita, la enfermera comentó a Doña Elixabete Maiztegui «no se cura porque no quiere, casi no come...». El día 26 de diciembre, la señora Maiztegui y Doña Maria del Coro Echegoyen se acercaron hasta el hospital. Ya en la habitación, Elbira les manifestó que no quería hablar con nadie y que por favor llamaran al capellán. Deseaba comulgar. «Baina lehen hartu duzu eta» («Pero antes ya ha comulgado») le dijo éste y ella contestó «Baña biatiko bezela bi aldiz artu diteke eta ni iltzera nijoa» («Pero como viático se puede comulgar otra vez y yo voy a morir»). Murió a las tres horas (34).

(32) Entrevista 4, pag. 50.

Respecto al tema, la señorita Karmele Esnal, entre otras, (entrevista 1, pag. 33) apunta la idea de que el acoso a las ikastolas coincide con el asesinato del inspector Manzanos, y sería una respuesta a este hecho. Sin entrar a valorar el tema, apuntare únicamente que Melitón Manzanos Gonzalez, inspector Jefe del Cuerpo General de Policía y Jefe de la Brigada Social, resultó muerto en Irun, el día 2 de agosto de 1968, mientras que la citada orden por la que se obligaba a la legalización de todos los centros docentes, publicada por el gobernador Civil, señor Oltra-Moltó, lleva fecha de 15 de julio de 1968.

(33) Entrevista 4, pag. 51.

(34) Entrevista 3, pag. 41.

AHOZKO AGIRIAK: ELKARRIZKETAK
DOCUMENTOS ORALES: ENTREVISTAS

Lehenengo Elkarrizketa
Entrevista Nº 1

Elkarrizketa: Karmele Esnalekin, 1986. urteko abenduan. Esnal andereñoa Orio herrian jaio zen 1932. urteko abenduan.

SARRERA

1.- Noiz eta nola ezagutu zenuen Elbira Zipitria?

Magisteritzako karrera bukatu eta gero, 1952-53 urtean, nere lagun batek eta biok, Euskara genekienez gero, Elbira Zipitriarengana joatea pentsatu genuen, berarekin harremanetan jartzeko, eta bere eskutik euskal irakaskuntzan hasteko. Lehen aipatutako nere laguna Jone Forkada zen, gaur egun Txillardegiren emaztea dena. Elbira Zipitriak ikastola bere etxean zuen, Donostiako alde Zaharreko Fermin Calbeton kalean, 26. zenbakian, bere etxeko sala edo egongelan.

Elbira Zipitriarengana abiatu ginen, gu maistra ginela esanez eta ea berak gu lagundu nahi gintuen galdezka. Elbirak baietza eman zigun eta gogoz hartu gintuen.

Lehenengo kontaktu horretan konturatu ginen, garai haietan, ikastoletan jende gutxi zebilela.

IKASTOLAREN FUNDAKETA EDO JAIOTZA

2.- Nola sortu zen Elbira Zipitriaren Ikastola?

Elbira Zipitria, nik dakidadez, berak kontatua, guda aurretik ikastolako andereñoa zen. Guda aurreko ikastola, Donostiako Alde Zaharreko Ikatzka kalean zegoen lokal batean zuten. Lokal honetan, Elbira zegoen, haur txikiekin, eskola-aurrea ematen eta neska mutil helduagoak Kanpanario eta Fermin Calbeton kaleetako izkinean zegoen lokal batean zeuden. Lokal hau Muñoa jaunarena zen eta han, esan dudanez, neska-mutil koskortuen eskola zegoen, eskola ondo antolatua.

Gerra eta gero, Elbira Zipitria erbestetik, Saratik hain zuzen, 1942. urtean etorri zen, berriro ere euskal irakaskuntzan lana egiteko asmoz eta nahiarekin. Baina jende asko oraindik kanpoan zegoen, exiliaturik, eta Elbirak ikasle bakar batekin has behar izan zuen. Berehala hiru ikasle eduki zituen.

Bere lehenengo ikaslearen izena ez dakit, baina geroko hiru ikasle horietako bat, Itziar Goenaga Barrena zela uste dut.

Orduan ikastolak ez zuen inongo izenik, ez ofizialik ez eta ofiziosorik, klase partikularak balira bezala ematen ziren, egunean bi ordu.

Gero ikasle hauek, bederatzi urte betetzen zutenean, Donostiako beste ikastetxetara joaten ziren.

Piska bat beranduago Faustina Karril eta Itziar Arzelus euskal irakaskintzan hasi zirenean, bi andereño hauek neska-mutil txikiei klaseak ematen zizkieten eta Elbirak heldu-
txoagoei. Faustina Karril, Gaztelubideko bajo batean hiru eta bost urte bitarteko neska-
mutilekin aritzen zen. Bera ez zen maestra, baina euskal abestiak irakasten zizkien, mar-
gotzen, paseoak egiten zituzten, dena euskal giro batean. Itziar Arzelusek, bere «Calle
Puerto»-ko etxean gauza bera egiten zuen. Azkeneko hau, maestra zen karreraz, eta ba-
dakit bere ahizpa ere, Amaie Arzelus, neska-mutil koskorrekin euskal irakaskuntzan aritu
zela.

Faustina Karril eta Itziar Arzelusen haurtxoek bost urte betetzen zituztenean, Elbira
Zipitriarengana jotzen zuten, han bederatzi urte bete arte berarekin ikasteko.

Gero, 1952-53. urtean ni Elbirarengana abiatu nintzenean, ikasle mordo handiago
bat zeukan. Goizez bi talde, zazpi eta bederatzi urte arteko ikasleekin eta arratsalde, hi-
rutatik bostetara, beste bi talde, bost eta zazpi urteren arteko neska-mutilekin.

3- *Elbira Zipitriaren ikastola, berak bakarrik fundatu al zuen?*

Bai, berak bakarrik, bere etxean. Ideia ere berak bakarrik izan zuen. Hau, 1942. urte-
an izan zen. Gainera, gauean ere klaseak ematen zituen, pertsona helduei, Euskara ikas
zezaten.

4- *Deskriba iezadazu mesedez Elbira Zipitriaren ikastola, nolakoa zen bere lokala?*

Lehen esan dudanez, Elbira bere etxean hasi zen klaseak ematen, bere etxeko sala
edo egongelan ematen zituen klaseak. Sala oso txikia zen eta Sala atzean alkoba zego-
en. Salan kutxa bat zeukan eta mahai bat, Mahai hau, paretako mahaia zen, igo eta jais-
ten diren horietako bat. Mahaia jaisten zen, idatzizko lanak egiteko, ariketak zuzentzeko
eta urrengo eguneko lanak agintzeko eta prestatzeko; bestela klaseak lurlean ematen zi-
ren, denak lurlean eserita, andereñoa ere bai; denak korroan Elbiraren inguruan eserita.

Harbela ere bazuen, kendu eta jartzen zen harbela; harbela txikia, metro t'erdikoa
gutxi gora behera.

EGOERA JURIDIKO ETA EKONOMIKOA

5- *Zein zen ikastolaren egoera juridikoa?*

«Clandestina total»; bai, ez zegoen inongo legeztaziorik. Askotan ikasleak, zorro eta
karterarik gabe joaten ziren Elbirarengana, ikus ez zedin, Alde Zaharreko etxe hartan,
klaseak ematen zirenik. Etxeko atarian banaka sartzen ziren neska-mutilak, multzo handi-
rik osatu gabe, sospetxak ez altxatzeko. Ezin zen «Academia» izenaren azpian ere ezta-
li, han klaseak Euskaraz ematen zirelako. Ez zuen izen ofizialik ez eta ofiziosorik; ez zuen
ezer ez.

6- *Elbiraren ikastolan ez zen titulu akademikorik ematen noski. Orduan zein zen hango ikas-
keten balio ofiziala?*

Ez, han ez zen titulurik ematen; hango ikasleek ez zuten «Cartilla Escolar» rrik ere
ez. Elbira Zipitriaren ikastolatik beste eskola batetara pasatzen zirenean, orduan atera-
tzen zuten kartilla eskolarra. Eskola askotan harritzen ziren eta galdetzen zuten ea nola
posiblea zen bederatzi urtetako gazteak kartilla eskolarrarik gabe egotea. Askotan ere,
ajolakabe bezala ikusiak izaten ziren kartila gabeko haur hauen gurasoak.

Elbiraren ikasleak bederatzi urte bete arte berarekin egoten ziren. Gero, beste ikastetxetara jo behar zuten, han Batxilergoan sartzeko, ingesoko esamina prestatzeko kurtsoa egiteko. Ikastetxe berrietara sartzeko, askotan, sarrera examina gogorak jartzen zituzkieten eta horregatik Elbirak bederatzi urteko ikasleekin, San Ignazio eguna arte egoten zen klaseak ematen, batez ere gaztelaniar gramatika irakasten. Oso ondo prestatzen zituen haurrak erdal ikastetxeetako sarrera examina arazorik gabe gaindi zezaten. Gogoratzen dut, erdal gramatikan, analisi sintaktiko eta morfologiko gogorak egiteko gai izan zitezkeen prestatzen zituela, eta matematiketan, zatiketak dezimalekin; askotan ikastetxe hauetan eskatzen zen baino gehiago irakasten ziren Elbirak. Eta benetan, gehienak, examina hori inongo arazorik gabe gainditzeko zuten. Erderaren irakasketa hau, azkeneko urtean hasten zen; Elbirak bere klase guztiak Euskaraz soilik ematen zituen; erdera, bederatzi urteko neska-mutilei bakarrik irakasten zien.

7- Elbira Zipitriak arazo burokratikorik eduki al zuen, edota beste arazo garrantzitsurik? zuk lehen aipatu duzu, batzutan ikasleek ez zutela zorrerik eramaten sospetxak ez altxatzearren. Horrelako beste arazorik gogoratzen al duzu?

Ez, ez zuen besterik. Polizia ez zitzaion bere etxera joan; neri bai, nik antolatu nuen ikastolara bai, baina nik dakidanez, berari ez zitzaion joan. Bestetik arazo burokratikorik ez zegoen, Elbiraren ikastola ofiziala ez zelako eta horregatik paper ofizialik ez zegoelako; bakarrik lehen aipatutako Kartila Eskolarraren arazo hori. Bestalde, bere etxeko auzo-koekin oso ondo konpontzen zen eta auzo-koekin oso ondo onartzen zuten ikastola, beko tabernariak eta etxeko auzo-koekin ez zuten protestatzen, ez zuten inoiz ezer esan, ez zuten noski inoiz salatu.

8- Nola mantetzen zen ekonomiko arloan ikastola; zeintzuk ziren ikastolaren sarrera ekonomikoak?

Gurasoek ordaintzen zutena, hori bakarrik. Nik kalkulatu dut hamar duro hasiko zela kobratzen ikasleko. Ez zegoen beste dirulaguntzarik bakarrik hilabeterokoa; gurasoek hortik aparte ez zuten beste dirurik jartzen. Noski, dirulaguntza ofizialik ez zegoen, erakundeetatik etorritakoa ez zegoen. Ez zen ere, dirua lortzeko kanpaina edo bildumarik egiten, ez tabernen artean dirua lortzeko ez besterik, bakarrik gurasoek hilabetero ematen zutena, eskola familiarra zen. Ez zuen, nik dakidanez, prestamori eskatu; gainera ez dut uste horren beharrik izan zuenik, berak klaseak bere etxean ematen bait zituen.

Elbirak bere ikastola zuen bizumodu bakarra. Ni Elbirarengana joan nintzenez, berarekin urte bat egin nuen ezer kobratu gabe. Nik karrera, bukatu berria nuen, eta Elbirarengana joan nintzen esperientzia hartzera eta ikastera, bere metodoa ikustera eta ikastera, baina klaseak berak bakarrik ematen zituen. Beno, neskamea zeukan eta batzutan, arratsaldetan neskamea, oso iaioa zela, Igini deitzen zen, laguntza piska bat ematen zion, ohituta zegoelako.

ARLO PEDAGOGIKOA

9- Irakasleen prestakuntza zein zen?

Beno, bera maestra zen karreraz, eta berarekin bere metodoa ikastera joaten zirenek magisteritzako karrera egina eduki behar zuten; berak magisteritza gabeko pertsonarik ez zuen onartzen. Magisteritzako karrera ez zuenari beste eginkizunak bidaltzen zituzkion, adibidez eskola bukatu eta gero abestiak landu edota paseoak egin eta abar, baina eskola lanetan aritzeko magisteritzan titulodunak nahi zituen.

10- *Ikasleak nola lortzen zituen?*

Ezagunak, familia ezagunen artean

11- *Ikasleen jatorri soziala zein zen?*

Elbirari berdin zitzaion bere ikasleen jatorri soziala, baina gauza bat gertatzen zen: elite bat zela, ez elite ekonomiko bat, elite kultural bat baizik; baina sozial aldetik eta diru aldetik denetik zegoen: bankuetan lana egiten zuen jendearen seme-alabak edota midikuen haurrak, harakinen semerik bazegoen ere, denetatik zegoen. Bai, gogoratzen dut, Bretxako merkatuko harakinen seme-alabak zituela.

Ikasleen kopurua klase bakoitzeko, hamar-hamaikakoa zen, ez zuen gehiagorako lekurik.

12- *Berak zein mailak ematen zituen?*

Bera, lehen esan dudanez, 5-9 urteko ikasleekin zebilen. Beno, hasera batean suposatzen dut, txiki txikiekin ere arituko zela, baina berehala, Faustina Karril eta Itziar Arzelus hasi zirenean, gauza banatu zen. Faustina Karrilek eta Itziar Arzelusek, bakoitzak bere egoitzean, 3-5 urteen arteko gazteei ematen zieten klasea eta gero haur hauek Elbira Zipitriarengana pasatzen ziren. Orduan hasi zen horrelako lotura bat; Faustinarengandik eta Itziarrengandik Elbirarengana jotzen zuten eta Elbirak ez zuen jadanik ikasleak bilatzen zertan egon beharrik. Jendeak bazekien, Faustina edo Itziarren ikasketak bukatu eta gero, Elbirarengana jo behar zela.

Elbirak, bederatzi urteko gazteak Gaztelaniazko eskoletan ingresoko kurtsoa egin zezaten prestatzen zituen.

13- *Elbira Zipitriak zein materiak irakasten zituen?*

Berak dena Euskaraz ematen zuen eta denetik ematen zuen; gramatika, matematika, gizarte, natura, erligioa.

Bere materiala «Xabierto» liburua zen, batibat irakurketa emateko. Irakurtzen eta idazten ikasteko, txotxak erabiltzen zituen, «Martin Txilibitu» liburua ere bai.

«Xabierto» liburua ez zegoen, agortua zegoelako eta orduan askok «Xabierto» zaharrak erabiltzen zituzten, etxeetan gordeak zeudenak erabiliaz eta beste askok «Xabierto» makinara pasatua zeukaten eta horrekin ibiltzen ziren, garaietan fotokopiarik ez zegoelako. Eta «Kristau Ikasbidea» uste dut garai horretarako bazegoela.

Gizarte eta Natura adibidez, berez ematen zuen, testorik ez zegoenez.

14- *Berak ba al zuen sistema pedagogiko berezirik?*

Beno, uste dut Iparraldean egon zenean, Frantzian eskolak ikusi zituela eta noski, handik metodoak eta, ikasiko zituela suposatzen dut.

Bere eskola oso dinamikoa zen eta oso aktiboa. Matematikak adibidez, era aurrerakoi batean ematen zituen. Garaietan hemen erdal ikastetxeetan generalki mutil bati haseratik zenbakiak sartzen zitzaizkion. Elbirarekin ez; lehenez matematikak egungo gauzekin sartzen zituen, matematikaren kontzeptua eta ariketak, saguak, sagarrak eta pilotak edo kanikak batzen eta kentzen egiten zuen. Hau da, lehendabizi zen gauza logikoa eta gero eransten zion abstrakzioa eta teoria, zenbakiak eta matematikako ikurak erantziz.

Bere material guztia hori zen; txotxak, pottokak edo kanikak, arkatz gorri eta urdina, dibujoko bloka eta «Xabierto».

15- Hau izan da Elbira Zipitriaren lehenengo etapa gerraondoa. Azal iezadazu mesedez, Elbiraren ikastolaren ondorengo bilakaera.

1966. urtearen inguruan, ez nago ziur, baina garai horretan izan zen, Elbirak bere etxea usten du eta Mari eta Virgen del Coro kaleetako lokal batean klaseak ematen hasten da. Lokal hau, Felitxu Erasurenena zen. Felitxu frantseseko irakaslea zen. Berak frantsesa, frantsesetik euskarara ematen zuen.

Beste etapa batean, Elizaren babespean jarri ziren, hala nolako legeztapen bat lortzeko. Orduan Santa Maria elizako lokal batzutan jarri ziren. Hau gertatu zen Manzanas inspektorea hil zuten garaian eta orduan gobernadoreak esan zuen «Voy a cerrar esos antros de pisos». Orduan, hemengo jesuita batek, Elizegik, lege bat aurkitu zuen eta horren bidez, Elbiraren ikastola Elizaren menpean jarri zen «Escuela Parroquial» bezala. Eleizak usten zituen lokala eta Alde Zaharreko guztiak, Santa Mariako lokal hauetara pasatu ziren.

Urrengo pausoa «Orixe» ikastola sortzea izan zen. Berriz ere bueltatu dira Muñoa jaunaren lokaletara. Orain gurasoak juntaren bidez mugitzen dira. Gurasoek juntak lortu zituen lokalak eta abar. Ez naiz gogoratzen noiz sortu zen zehazki «Orixe» ikastola. Hori «Orixe» ikastolan esango dizute, ziurki, Galde ezazu han Mari Carmen Mitxelenarengatik.

Elkarrizketa: Amale Arzelusekin elkarrizketa, 1988. urteko azaroan. 1924. urtean jaioa, Elbirak animatuta, Euskarazko klaseak urte askoz ematen aritu izan dena.

SARRERA

1- Nola ezagutu zenuen Elbira Zipitria?

Nik Elbira txikitatik, gogoratzen naizenetik, ezagutzen dut. Gure aita, «Luzear» idazlea zena, Elbiraren laguna zen eta gure sendiak berarekin tratu handia zuen.

2- Esango al zenidake Elbirak guda baino lehen non egiten zuen lana?

«Koruko Andre Maria» deitzen zela, uste dut, berak lan egiten zuen ikastola. Juan de Bilbao kalean zegoen. Ikastola Muñoatarrena zen, eta bertan neskatoek ikasten zuten. Muñoatarrek beste ikastola bat zuten, Canpanario kalean eta bigarren honetan mutikoak aritzen ziren.

3- Guda iritsi zenean Elbirak zer egin zuen adieraziko al didazu?

Elbira Zipitriak, beste askok bezala, alde egin behar izan zuen, eta bera Iparraldera abiatu zen. Guk ere, gure senideak, alde egin genuen eta hiru urte egin genituen erbesteetan, baina Elbira kanpoan zenbat denbora egon zen ziur ez dakit, 1943. urte aldera etorriko zela pentsatzen dut.

IKASTOLAREN FUNDAKETA EDO JAIOTZA

4- Gerra ondoko ikastola Elbirak bakarrik ireki zuen edo norbaitek animatu zuen ideia honetan?

Berak bakarrik ireki zuen eta ez dut uste inoren animorik behar izan zuenik ikastola zabaltzeko. Bere Euskararenganako maitasunarengatik eta haurrenganako amodioagatik fundatu zuen ikastola. Pertsona txikia baina kementsua, halakoa zen bera.

5- Zein urtetan ireki zuen gerra ondoko ikastola hau?

Ziurki ez dakit, baina 1945 aldera izan zela esango nizuke. Elbirak euskal haurrei ematen zien klasea, bakarrik Euskara ondo zekitenak hartzen zituen, baina berak haur txikiei Euskara ondo irakatsiko zien andereño bat nahi zuen eta neri, nere lana uzten baren berak Euskara ondo ez zekiten haurrak bidaliko zizkidala esan zidan. Ni ezkondu eta gero, 1949. urtean hasi nintzen klaseak ematen, hasieran San Jeronimo kaleko 20. zenbakian eta gero Colon Pasealekuko 9.anr. Hori kontutan harturik, bera 1945. urtean hasiko zela pentsatzen dut.

6- Non zeukan Elbirak bere ikastola?

Klaseak bere etxean ematen zituen. Hau, Fermin Calbeton kaleko 26. zenbakian aurkitzen zen. Elbira Zumaian jaioa zen baina txikitatik Donostian bizi zen eta beti hor, Fermin Calbeton kalean.

Etxeko sala erabiltzen zuen ikasgela bezala. Sala hartan ohe bat zegoen, gortina batzurekin gordeta. Lekua ez zen oso handia, mahai bat ere bazuen, paretaren kontra jasozen diren mahai horietako bat eta hori heldutxoek, 7, 8, 9 urtekoek, idazketa lanak egin behar zituztenean jaisten zen.

EGOERA JURIDIKO ETA EKONOMIKOA

7- Zein zen ikastolaren egoera juridikoa?

Oso legala ez zen ikastola. Nik uste dut botereak bazekiela ikastolak zeudela, baina guk erdi isilka egon behar genuen. Gauza bat egiten zen: eskola partikularra bezala azaldu ikastola. Garaian maestra batek eskola partikular bat antola zezakeen hamar ume baino gutxiago edukitzen bazituen; andereño bat hamar neska-mutilekin eskola partikularra zen eta hori legezkoa zen. Urteak pasa eta gero, «Cartilla de Escolaridad» delakoa eskatzen hasi ziren eta orduan hasi ziren guretzat arazo gogorrak; eskola partikularraren formulak gero eta balio txikiagoa zuen.

8- Ikastolak zein diru sarrerek zituen?

Ikasle bakoitzari kobratzen ziona. Horretatik bakarrik bizi zen bera. Bere ikastola hobetzeko edo materiala erosteko eta abar, ez zuen dirulaguntzarik lortu, dirulaguntza ofizialik noski ez.

9- Elbirak bere ondoan irakasle kontrataturik ba al zuen?

Hasieran klaseak berak bakarrik ematen zituen. Geroxeago euskaldun andereño maestreak izaten zituen praktikak egiten, Euskaraz nola irakatsi eta bere metodoa ikasten. Praktikak egiten zituzten hauek ez zuten kobratzen.

10- Ikastolak barne arautegirik al zuen?

Eskola honek ez zuen inongo barne arautegirik; eskola partikularra zen eta ez zuen horren beharrik.

ARLO PEDAGOGIKOA

11- Zein zen Elbira Zipitriaren prestakuntza akademikoa?

Elbirak magisteritza karrera zuen. Gainera oso emakume argia zen eta langilea eta Frantziar, Alemaniar eta orokorki herri guztietan ematen ziren esperientzi eta ikerketa pedagogikoaz irakurtzen zuen, ikasten zuen. Berak Frantsesera oso ondo zekien eta Europan pedagogi mailan egiten ziren aurrerapenen berri edukitzeaz kezkatzen zen. Guda iritsi zenean eta erbestera joan behar izan zuenean, Frantziako irakaskuntza metodoa sakonki aztertu zuen eta berriro ere bueltatu zenean, pedagogi metodo berri hauek martxan jarri zituen hemen. Orain hain normalak diren metodo eta irakaskintza formak, berak orain dela 40 urte erabiltzen zituen. Elbirak, Frantziar pedagogi mailan Espainiar baino askoz ere aurreratuagoak zeudela kometatzen zuen.

Esan dudana bezala Elbira jakinmina handiko emakumea zen, oso kementsua baita ere. Bere bizitza guztia haurrak, ikastola, Euskara eta Euskadi zen. Horregatik erbestetik etortzean ikastola bat zabaldu zuen. Gerra eta gero, Donostian jarritako lehenengo ikastola Elbirarena izan zela zalantzarik gabe esan daiteke. Gero, berak bultzaturik, bere bidea jarraituz, Donostian beste ikastola batzu jaio ziren; badakit ere, Bizkaiatik etorri zirela Elbiraren esperientzia eta aholkuak hartzera. Bai, bera izan zen ikastolaren mugimendua suspertu zuena. Horrela, Faustina Karril andereñoa haur txikiekin aritzen zen, 3-5 urte bitartekoekin; nik neuk ikastola bat ireki nuen gure etxean, Alde Zaharreko San Jeronimo kalean; nere ahizpa Itziar Arzelus, Puerto kaleko 10. zenbakian; Felitxu Erasok Frantsesa irakasten zuen. Gero Elbirak urtero, karrera bukatu berria zuen euskaldun andereño bat hartzen zuen bere ikastolan eta praktika modura ikasturte osoan bere metodoa eta Euskaraz irakasteko teknikak irakasten zizkion. Hau egin eta gero, andereño berri honek

ikastola berri bat zabaltzen zuen Donostian. Horrela Karmele Esnalek hasieran Pedro Egaña kalean eta gero Buen Pastorreko enparantzan jarri zuen ikastola. Gros auzoan bazegoen beste ikastola bat, Maria Dolores Goyarena, baina hau gerra aurreko maestra zen eta andereñoa izandakoa eta berak bere aldetik ireki zuen ikastola eta ez Elbirak zuenki animatuta. Dena den, Donostiako ikastola gehienak, Elbiraren erara eta bere metodoa jarraituz ireki ziren.

12- *Elbirak animatu eta formatutako andereñoek zein prestakuntza akademikoa zuten?*

Berak magisteritzako titulua eskatzen zuen; karreraz maestrak behar zuten izan berarekin praktikak egin eta gero, ikastola berriak zabalduko zituztenek. Nirekin salbuespena egin zuen; ni batxillerra egiten ari nintzela gudak harrapatu ninduen, baina Elbirak bazekien ni gauza nintzela andereño bezala lana egiteko.

13- *Nola lortzen zituen Elbirak bere ikasleak?*

Adiskidetasunagatik hasiera batean, baina jendeak ezagutzen zuen, giro euskaldu-neko jendeak bazekien Elbira nor zen eta ikastola lanetan aritzen zela. Demanda edo eskaera asko zeukan eta ezin zituen ikasle guztiak hartu, ikasleak beti soberan zituen. Gurasoak, bere haurra onartzen ez zuelako batzutan haserraten zirela uste dut, baina ezin zuen, ikasle asko eta leku gutxi. Alde horretatik ez zuen inongo arazorik, ikasle potentzial asko zuen. Esan dudak bezala, hau, bera oso ezaguna zelako gertatzen zen; guda aurretik ezaguna zen andereño bezala eta idazle bezala eta guda ondoan ikastola ireki zutenean ezagunagoa euskal giroetan.

14- *Zein zen ikasleen jatorri soziala?*

Ez zuten jatorri sozial berezirik, denetatik zegoen. Behar bada, gerra eta gero euskal munduaz arduratzen zirenek halako maila sozial bat zuten, klase media bat; dena den, gizarte maila ez zen kondizio bat bere ikastolan sartzeko eta denetatik zegoen bere ikastolan, dirudunen seme-alabak eta hainbeste diru ez zuten senidekoak.

15- *Zenbat ikasle zituen?*

Goizean hamar eta arratsalde beste hamar. Noizbait hamaika edo hamabi gehie-nez, baina normalean hamarrekota taldea zen.

Gauetz ere klaseak ematen zituen, pertsona helduei. Hauei Euskara irakasten zien, zekiten Euskara landu eta aberastu...

16- *Zein eskola-mailak ematen zituen?*

Berak 5 urteko haurrak hartzen zituen eta 9 urte bete arte klasea ematen zien. Txikiagoak ez zituen hartzen, denera ezin zelako iritxi.

17- *Zein hizkuntzatan ematen zuen klasea?*

Dena Euskaraz ematen zuen. Baina azkeneko kurtsokoei Gaztelania irakasten zien, erdal eskoletara pasa behar zutelako ingresoak egitera.

18- *Zein zen berak erabiltzen zuen eskola materiala?*

Ez zuen ezer ez; libururen bat edo, gutxi. Denak bera irakatsia eta haurrak bloketan apuntatua.

15- *Deskribatu dugun egoera honek noiz arte iraten du?*

1969. urtearen aldera «Cartilla de Escolaridad» hasi ziren eskatzen eta ordurarte «escuelas privadas» bezala azaltzen ziren eskola eta ikastolei arazoak eta oztopoak jar-

tzen. Hori ikusita, aldaketa bat eman behar zela ikusi zuen Elbirak. Orduan Koruko Alda-nondorekin eta Mari Karmen Mitxelenarekin elkartu zen eta «Orix» ikastola sortu zuten, Santa Maria elizaren atzean, gaztelura igotzeko bide horretan.

20- Zerbait gehiago adierazi nahiko zenuke?

Bai, orain oso ezaguna den «NOR-NORI-NORK» euskal aditza izendatzeko modua Elbira Zipitriak asmatu zuela. Bere omenaldia eta gero argitaraturiko liburuan «Latxaga» jaunak ondo aurkezten du gai hau; irakurriko dizut: «Baiñan Elbirak aurrei euskal aditza erakutsi bear. Asi zan arrotz itzak erabiltzen: Nun dago EL AGENTE? Nun dago EL PACIENTE? Nun dago EL RECIPIENTE? Aurrak parrez erantzuten zioten. EL AGENTE ertza-ñarekin naastutzen zuten. EL PACIENTE berriz ortxe nunbait gaxotegiarekin elkartzen zu-ten. EL RECIPIENTE beste aldetik barreñua, pitzerra edo zernai tresnarekin naasten zu-ten. AGENTE-PACIENTE-RECIPIENTE itzak, nunbait, ez balio euskal aurrentzat.

Galderak obeto neurtzeko ortxe asi zan esaera berriekin, orain euskeraz: Nun dago NOR jauna? Nun dago NORI? Nun dago NORK? Orrela, bare-bare, ustekabean, sortu zan NOR-NORI-NORK jauna, euskal aditzaren giltzarri ta bizkar-ezurra». (...) «Gure alde-tik auxe agertu nai genuke: NOR-NORI-NORK esaldia euskal aditzaren sena dela ta gil-tza onen nagusitza Elbira Zipitria'k daukala.» (35).

(35) «Zipitria'tar Elbire "Andereñoa" omenaldia». Euskarazaintza'k. 94 orrialdea. S.S. 623/86.

Elkarrizketa: Elixabete Maiztegi Arrizabalagarekin, 1988. urteko azaroan. 1911-11-11 datan jaioa, maestra tituluduna du. 1936-39 ko gerra baino lehen maestra bezala lana egiteko oposaketak gainditu zituen eta gerra garaian zigortua edo santzionatua izan zen. Elixabete Maiztegi, Garayalde jaunaren alarguna da.

SARRERA

1- Nola ezagutu zenuen Elbira Zipitria?

Gerra aurretik ezagutu nuen, «Emakume Abertzale Batza» eta «Euskaltzaleak» erakundeetan; han biltzen ginen garaian euskal kezka genuenok eta han topatu nuen nik Elbira.

Ez zen nerekin ikasia, bost bat urte lehenago ikasia zen; edozein modutan ondo konpontzen ginen eta harremanetan hasi ginen.

Elbirarekin beti zegoen zertaz hitzegiterik. Emakume harekin ezin zen txorakerietaz hitzegin, beti bazuen intereseko zerbait kontatzeko edo eztabaidatzeko. Ibilaldiak egiten genituen, ba adibidez ez dakit zein herrian batzoki bat ireki dela eta hara joaten ginen esandako erakundeetako talde handi bat; ordutikan ezagutzen dut nik Elbira.

Gero, seme-alabak izan genituenean, nere mutikoa bere ikastolara eraman nuen eta erlazioa beti mantendu da.

2- Zein urtetan jaio zen Elbira?

1906. urtean jaio zela uste dut

3- Ba al dakizu zein urtetan bukatu zuen karrera Elbirak?

Zertxobait berandu hasi zuen karrera. Berak beka batekin ikasi zuen, arro esaten zuen hori, bere aita kanteroa zela eta familian ezin ziotela ordaindu eta beka bat lortu zuela. Garaian magisteritzako ikasketak 14 urtekin hasten ziren eta Elbirak bi urte beranduxeago edo, 16 urte zituela hasi zituen.

Karrera ikasi zuenean Euskarari buruzko eztabaidak izan zituen. Hemen, Bort andereñoa irakasle bezala zegoen, oso españolista omen zen emakume hau eta Euskarari buruzko teoria bitxi batzuek defendatzen zituen. Garairako, Elbira nahiko ikasia zegoen euskal gaietan eta Bort andereñoaren teoriak ez zitzaizkion batere gustatzen, eta noizbait harekin eztabaidak izan zituen. Honekin, Elbirak garai hartan ere bere nortasuna erakutsi zuela esan nahi dut, ez zela isiltzen hitzegin behar zuela iruditzen zitzaionean. Nik hau berari entzunda dakit, nik hau ez nuen bizi, zeren nik Elbira karrera bukatu eta gero ezagutu nuen, bera jadanik andereño bezala klaseak ematen lan egiten zuenean.

4- Zuk ezagutu zenuenean, Elbirak non ematen zituen klaseak?

Juan de Bilbao kalean, hamar urte inguruko neskatoekin ibiltzen zen. Ikastola hau Muñoatarrena zen. Muñoatarrek Euskararen alde lan asko egin zuten gerra baino lehen,

hemen ikastolak antolatuz. Juan de Bilbao kalean bi klase zeuden, bata neska txikientzat eta bestea neska heldutxoagoentzat eta hemen Elbira zegoen. Campanario kalean beste egoitza bat zegoen eta honetan mutikoei hartzen zituzten klaseak. Elias Etxeberria eta Bereziartua jaunak hango irakasleak ziren. Orain «Orixe» ikastola dagoen tokian (Campanario kalea, 2. zenbakia) zegoen gerra baino lehen Muñoaren mutilentzako ikastola. Muñoaren ikastola esaten dut, berak antolatu eta berak bere diruz mantentzen zuelako.

5- *Eta guda iritsi zenean?*

Oso ezaguna zenez alde egin behar izan zuen. Baina ez pentsa politikako istilu askotan sartzen zenik. Ez zen inoren aurka hitzegiten zuena; aurka hitzegiten bazuen beti alderdikoen aurka zen, bere alderdikoei eskatzen zien dena, oso exigentea zen bere jendearekin; sozialista baten aurka ez diot nik entzun ez eta monarkiko baten aurka ere. Berak kontatzen zuen pasadizu bat gogoratzen dut: garai hartan Elizalde jauna institutuko irakasle famatua zen eta behin azterketa bat egitera ikasle bat joan zitzaion. Honek bazekien Elizalde abertzalea zela eta arrazoi horregatik solapan Ikurriña bat eraman zuen. Dirudienez azterketa nahiko gaizki egin zuen eta Elizaldek zera esan zion «hay que honrar lo que se lleva». Elbirak hau kontatzen zuen eta bera horrelakoa zen.

Guda iritsi zenean, Elbira Sara herrira joan zen Tolosako Pilar Sansinenearekin, Jesus Elosegiren emaztea. Harreman estuak zituen Elbirak senide honekin. Saran senide honen etxean egon zela uste dut. Saran ere hartu eman handia izan zuen Don Joxe Migel Barandiaranekin eta Pilar bere ilobarekin. Elbirarentzat, Barandiaran Jainkoaren hurrengo zen, nik uste; asko admiratzen zuen. Bestalde, Elbirak ez zuen denbora galdu Saran: bere frantsesa hobetu zuen eta Sarako eta inguruko gazteekin dantza talde bat antolatu zuen, eta Euskararen aldeko ekintzak egin zituen.

IKASTOLAREN FUNDAKETA EDO JAIOTZA

6- *Zein urtetan bueltatzen da bera erbestetik?*

Nik, 1942. urtean etorri zela uste dut. Iritsi eta berehala Migel Mari Egiari klaseak ematen hasten da. Migel Mari Egia pertsona mongolikoa da eta Elbirak, nahiko txikia zenetik, klaseak eman zizkion, lan eder bat burutuaz. Migel Mariri Frantsesa, Gaztelera eta Euskara irakatsi zion bai eta beste gauza asko ere. Ba, esaten nuena, Migel Mari gerra ondoko Elbiraren lehenengo ikaslea izan zela esango nuke. Nahiko aguro ere Mari Paz Sansinenea neskatoari klaseak ematen hasi zen, baina honekin denbora gutxi ibili zen. Klase hauek bakoitzaren etxean ematen zituen.

Baina Elbirak taldetxo bat antolatu nahi zuen; jarraipena izango zuten hurrekin lana egin nahi zuen. 1943. urtean lau ikasleekin hasi zen Arriola sendagilearen etxean. Ikasleak hauek ziren: Arriolaren seme bat eta alaba bat; Mari Koro Larrea, ingeniero baten alaba eta nere seme zaharrena. Arriolatarren etxean urte bat bete zuela uste dut. 1944. urtean Elbira, Ascension Goenagaren etxera igarotzen da klaseak ematera. Orain bost ikasle ditu: Mari Koro Larrea; Itziar Goenaga Barrena -Ascension Goenagaren iloba-, Ana Maria Isasa; bere izena gogoratzen ez dudan beste ume bat eta nere seme zaharrena. Etxe honetan bi urte egin zituela uste dut. Gero, bera bizi zen etxean ireki zuen ikastola, Donostiako Alde Zaharreko Fermin Calbeton kaleko 26. zenbakian. Hau, 1946. urtean izan zela esango nuke.

Poliki poliki Elbirak ikasle gehiago edukitzen joan zen eta orduan bi andereño prestatzen hasi zen: Itziar Arzelus eta Faustina Karril. Azkeneko hau ez zen maestra, ez zeukan titulurik baina oso goxoa eta oso ona zen haur txikiekin ibiltzeko. Hauek txikiekin hasi

ziren lanean, 3 urtekoekin. Faustina Karrilek alokatua zuen lokal batean ematen zituen klaseak eta Itziar Arzelusek bere Etxean. Haurrek 5 urte betetzen zituztenean Elbirarengana pasatzen ziren Elbirak 9 urte egin arte edukitzen zituen eta gero erdal eskoletara joaten ziren ikasleak ingresoko azterketa prestatzeko kurtoa egitera.

Hau kezka handia zen Elbirarentzat, erdal ikastetxeetara joateko haurrak ondo prestatzea. Neska-mutilek erdal eskoletan arazorik edukiko balute, Euskarari errua botatzea oso erreza izango zen eta Elbirak horrelakorik ez zuen nahi. Horregatik gai guztiak oso ondo prestatzen zituen, baita Gaztelania ere. Nere bigarren semeak askotan esaten du ez duela ulertzen nola beraiek bi edo hiru ordutako klasea eman eta hain ondo prestatuak ateratzea, beste eskoletako haurrek 5 edo 6 ordu ematen zituzten bitartean, eta haiek bezain ondo edo hobeto ateratzea. Elbirak gauzak sustraitikan esplikatzeko zituen eta klasean beti jolasean zebilela zirudien baina benetan asko ikasten zuten. Benetan oso ondo prestatuak ateratzen ziren eta horrela aitortzen zuten erdal eskoletako maisuek.

7- Elbirak non ikasi zuen bere irakaskintza metodoa?

Esan dugunez bera maestra zen. Baina hortaz aparte pedagogiari buruzko liburu eta artikuluak irakurtzen zituen. Berak ahizpa bat zuen, uste dudanez Marsellan bizi zena eta ez dakit bere ahizpak zuzenean edo bere ahizparen bidez Frantziako irakasle batek pedagogiako liburu, kazeta eta orokorrean materiala bialtzen zion. Elbirak beti banguardian egon nahi zuen. Horrela, orain matematikak emateko dagoen era berri hori, ba berak duela urte asko ekarri zuen hona.

Bestalde, Migel Mari Egia mutiko atzeratuari ematen zizkion klaseetan berak asko ikasten zuela esaten zuen. Klase haietan beste haurrei gaiak nola esplikatu, oztopoak eta zailtasunak nola gainditu... ikasten zuela, pedagogiarenean aldetik esperientzi garrantzitsuak lortzen zituela.

EGOERA JURIDIKO ETA EKONOMIKOA

8- Zeintzuk ziren Elbiraren ikastolaren diru sarrerak?

Hilabetero haur bakoitzarengatik kobratzen zuena. Hori bakarrik eta benetan ez zen asko, ikasle gutxi zituelako: goizetan Migel Mari Egiaren etxera joaten zen klasea ematera, gero bere etxean 10 ikaslez osatutako talde bati ematen zion klasea eta arratsaldean beste hamarreko taldea zuen. Hori zen dena. Baina Elbira oso austera zen, ez zuen «gasto superfluo»-rik egiten. Hori ikusita jendeak lagundu nahi zuen, diru laguntzaren bat eman, eta askotan Elbirak pertsona hauekin haserraten zen. Orduan beste batzuk, erremite gabeko sobre batean dirua bialtzen zioten. Badakit behin horrelako gauza bat gertatu zitzaiola eta Elbira denbora luze batez diru hori gastatu gabe egon zela, berak diru kopuru «extra» hori merezi ez zuela uste zuen.

Gainera bere ikasleen artean «bekatuak» bazituen. Berak bazekien gutxi gora beheara ikasleen gurasoen diru egoera eta txarra bazen ez zien kobratzen; askotan izan zituen klasean bat edo bi ikasle dohain.

Gabonetan edo udaran jendeak opariak egiten zizkion Elbirari, badakizu, turroia edo botilaren bat. Eta opari hauek gustorago onartzen zituen berak. Migel Mari Egiaren amak, oso gusto oneko emakumea, batzutan arropa edo beste opariren bat egiten zion eta hau ere onartzen zuen.

ARLO PEDAGOGIKOA

9- *Bete etxeko ikastolan Elbirak beste irakasleren laguntza al zuen?*

Hasieran ez. Gero andereñoak prestatzen hasi zen eta berarekin Karmele Esnalek, gero Santo Tomas Lizeoaren sorreran hainbeste lan egin zuenak eta Txillardegiren emaztea Jone Forkadak eta Mari Karmen Mitxelenak eta beste askok bere etxean ikastaro bat egiten zuten bera laguntzen eta bere metodoa eta didaktika ikasten. Hau egin eta gero, andereño hauek ikastola berriak zabaltzen zituzten. Bakoitza libre zen non eta nola ikastola ireki baina gehienek Elbiraren tankera eta metodoa jarraitzen zuten. Horrela sortzen joan ziren ikastolak Donostian.

10- *Zein zen Elbirak erabiltzen zuen materiala?*

Benetan oso material gutxi zeukan. «Xabiertxo» liburua bazegoen eta honekin lan izugarria egiten zuen. Gero liburu hau agortu edo behintzat liburudendetan aurkitzea ezinezkoa zen eta Maritxu Barriolak erdi klandestinoak zen edizio berri bat argitara eman zuen.

Honetaz aparte, Elbirak ikasleei ipuin, olerki eta kanta pilo bat irakasten zien. Oso ondo aukeratuak eta sailkatuak zituen olerki eta abesti hauek. Lan honetan, Oartzungo Lekuonak eta Don Nemesio Etxanizek asko lagundu zuten Elbira; hauek ipuiak egiten zizkieten, beste ipuin batzu egokitu, kanta politak bilatu eta abar.

11- *Bere etxeko ikastolak zein urterarte irauten du zabalik?*

1968. urtearen inguru, zailtasunak eta oztopoak handitzen doaz eta Elbira beste andereño batzurekin Santa Maria elizaren babesa hartzeko beharrean aurkitzen da. Pisuak uzten dituzte eta elizaren atzekaldeko lokal batzutura igarotzen dira. Horrela sortzen joan zen «Orixe» ikastola.

12- *Elbira Zipitria noiz hil zen?*

1982. urteko abenduaren 26an hil zen ospitalean. Azkeneko boladan oso depresioaldi gogorrak sofrizten zituen, ez dakit zergatik, beno egia da Euskararen kontuak, «H»-ren asuntuak eta beste arazo batzuk ere asko sufrierazten ziotela; oso gaizki pasa zuen; bakardadea eta bakardadea, bakarrik zegoela esaten zuen. Horregatik bere lagun batzuk talde bat egitea erabaki genuen eta egunero taldeko bat edo bi berarekin bizpahiru ordu pasatzera joatea. Elbirak ideia onartu zuen. Lehenengo bi egunetan gustora egon zen gure bisita hauekin baina dena ondo zihoala uste genuenean, hirugarren egunean ospitalera igo zuten.

Bisita egun batean, ni, nere suhia eta nere ilobarekin, ospitalera igo nintzen Elbira ikustera. Enfermerak, arduratuta, esan zidan «no se cura porque no quiere, casi no come...». Abenduaren 26an, nerekin, Mari Koro Etxegoien etorri zen Ospitalera. Gelan sartu ginenean, hitzegiteko gogorik ez zuela adierazi zigun Elbirak; kapelaua deitzeko eta alde egiteko. Jaunartu nahi zuen. «Baina lehen hartu duzu eta» adierazi zion apaizak eta Elbirak «baña biatiko bezela bi aldiz artu diteke eta ni iltzera nijo». Handik hiru ordotara hil zen.

*Elkarrizketa: Mari Karmen Mitxelena Illaramendirekin, 1988. urteko azaroan. Mitxelena ande-
reñoa, 1938. urtean Usurbilen jaioa da. Maestra tituloduna, Elbira Zipitriarekin,
Donostiako «Orixe» ikastola sortu zuenetakoa dugu.*

SARRERA

1- Noiz eta nola ezagutu zenuen zuk Elbira Zipitria?

Karreraren bigarren urtea ikasten ari nintzela, Magisteritza eskolara euskal ande-
reñoen hila, Jone Forkada, gaur Txillardegiren emaztea dena, etorri zen. Ilunabarrean haur
batzuri Euskarazko klaseak emateko pertsona bat behar zuen. Ni suertatu nintzen, eta
modu honetan hasi nintzen euskal irakaskintzaren munduan. Jone Forkada bera izan zen
geroaxeago Elbira Zipitriarengana eraman ninduen. Elbirak magisteritza bukatzen ari
nintzela ikusi zuenean, euskal irakasleen behar handia zegoela esan zidan eta karrera
bukatu eta berarekin urte beteko praktikak egin eta gero ikastola berri bat irekitzera ani-
matu ninduen. Hau, 1955. urtean izan zen; 1956.ean, Elbirarekin praktikak egin nituen eta
azkenik, 1957. urtean, Donostiako kaiako etxebizitza batean ireki nuen ikastola; Jone For-
kadak ikastola utzi ondoren gela hartantxe jarraitu nuen nik.

2- Ba al dakizu noiz jaio zen Elbira?

1907. urtean jaio zela uste dut, baina ez nago oso ziur. Horrela balitz orain berak 81
urte izango lituzke. Maiatzean jaio zela badakit, baina urtea ziur ez nizuke esango. Berak,
nere amak zituen urteak zituela esaten zuen eta nere amak urte horiek ditu.

3- Gerra baino lehen Elbirak lana non egiten zuen esango zenidake?

Muñoaren ikastoletan lan egin zuela esaten dute. Nik ziur ez dakit, pentsa ezazu ni
guerra garaian jaio nintzela. Berarentzat Muñoa jauna oso gauza handia zen, euskal ikas-
tolen sortzailetakoa, euskal irakaskuntza asko lagundu zuena. Muñoaren ikastola batean
lanean aritu zela esango nuke, Donostiako Alde Zaharrean.

4- Eta gerra iristen denean?

Guda garaian Elbirak alde egiten du eta Sara herrira joaten da

IKASTOLAREN FUNDAKETA EDO JAIOTZA

5- Nola deitzen zen gerra eta gero Elbirak sortu zuen ikastola?

Ez zuen izenik. Ikastola klandestina zen eta ez zuen izenik.

6- Elbira Zipitriak berak bakarrik ireki zuen ikastola edo norbaitek animatu zuen?

Ez dakit baina Elbirak ez zuen benetan bere ideiak aurrera eramateko animo berezi-
ren beharrik; oso emakume kementsua zen: ez dut ikusten Elbiraren kasuan norbaitek
bera animatzearen beharrik.

7- Zein urtetan ireki zuen gerra ondoko bera ikastola?

Donostiara bueltatu eta berehala lau edo bost ikasle lortu zituen. Entzuna dut, Zuma-
labetarren etxean biltzen zirela haurrak eta hara Elbira joaten zela klasea ematera.

Geroago bere etxean zabaldu zuen ikastola. Urtea ez dakit ziur, baina badakit 1950.
urterako Elbira bere etxean zebilela klasea ematen.

8- Deskribatuko al zenidake klasea ematen zuen gela?

Bere etxea Donostiako Alde Zaharreko Fermin Calbeton kalean aurkitzen zen, 26. zenbakian.

Klasea etxeko gelan edo salan ematen zuen. Gela txikia zen balkoi bat zuena. Gelak alkoba bat zuen eta hau bere logela zen.

Baserrietan bezala hormaren kontra gordetzen diren mahai horietako bat bazuen, idazketa lanak egin behar zituztenean erabiltzen zutena, bestela jaso egoten zen. Guk orain «Orixe» ikastolan sistema honekin jarraitzen dugu, idazketa lanak egiteko oso onak direlako baina beste ariketa mota edo ekintza egiteko lekua behar dugu eta sistema honekin ez dugu arazorik. Elbirarekin jarraitzeko, esango dizut idaztola edo harbela ere bazuela. Hau ez zen oso handia eta gordeta edukitzen zuen, behar zuenean zintzilikatu eta erabiltzen zuen.

Esan dizudan bezala, gela ez zen oso handia baina haurrak ondo sartzen ziren eta gainera Elbira oso aktiba zen eta umeak ez ziren azpertzten edo leku falta hori nabaritzen. Berak kantak, ipuinak, saltoak... egiten zituen ikasleekin; lan guztia idaztekoa ez bazen, lurrean egiten zuen. Nik, 65 urtekin hankak bildu eta haurrekin lurrean eserita ikusi dut Elbira.

Azkenik esan behar dut etxe hau berea ez zela, alokatua baizik.

EGOERA JURIDIKO ETA EKONOMIKOA

9- Zein zen ikastolaren egoera juridikoa?

Ikastola klandestina zen, erabat klandestina. Diktaduraren garai gogorrek ziren, baina legearen aldetik, hamar hurrez osatutako taldea klase partikularrek kontsideratzen ziren. Lege honi eutsiz garaiko ikastolak ireki genituen; tranpa txiki honekin, klase partikularren antzapean ikastola egin. Baina noski, hamar ikasle oso gutxi zen eta horregatik talde desberdinak antolatzen genituen; ni hasi nitzenean goizean Setatik 11k arte talde bati ematen nion klase, 11etatik 13,30 bitarte beste hamarrek talde bat nuen eta arratsaldean 15etatik 17ak arte bestea. Eta ni bezala, garaiko andereño gehienak horrela ibili ginen, guztira 30 ikasleekin baina hiru taldetan banatuak, klase partikularrek izango balira bezala. Elbirak berak ere horrela antolatzen zuen bere ikastola; kontutan eduki behar da bera izan zela lehenengo andereñoa eta berak andereño izaten irakatsi zigula.

Esan behar da baita ere, umeak zorrerik gabe etortzen zirela klasera, izkutuan eta isilpean ibili behar zen askotan.

10- Garaiko botoreak Elbiraren eta gero Donostiako beste ikastolen berriak bazuela uste al duzu?

Hasieran ez dakit; gero bai, oso ondo zekiten ikastolak non zeuden. Nik hau nere esperientziatik esaten dizut. Neri, Donostiako kaian alokatua nuen pisura, askotan etorri zitzaidan polizia azkeneko urtean. Horregatik azkeneko urte hau nik ez nuen ia kaian pasa; goizean haur batzuren etxean ematen nuen klasea eta arratsaldean beste ikasle baten etxean. Elbira ere horrela ibili zen. Azkeneko urtea esaten dudanean, 1967-1968 ikasturtea esaten dut. Ikastaro hori bukatu eta etxeetatik alde egin behar izan genuen, Elizaren babespean ikastola berriak irekitzeko. Argi dago orduan, esandako urtearen inguru, botoreak bazekiela non zeuden Donostiako ikastolak. Ikastaro hori baino lehen ez genuen horrelako arazorik izan; noizbait etortzen ziren ea nor bizi zen pisu hartan edo han zer egiten zen ikustera, baina erderaz esaten den bezala «acoso», 1967-1968 ikasturtean sentitu genuen. Dena den, guk ere eusgarri bat bagenuen: gu maestra titulodunak ginen, klase partikularrek ematen genituenak.

11- *Klandestina zelako, ikastolak izen ofizialik ez zuela esan dugu lehen. Jendeak nola eza-gutzen zuen edo nola deitzen zion ikastolari?*

Andereño Elbiraren ikastola eta nere kasoan berdin, Andereño Mari Karmenen ikastola eta beste ikastolak era berean deituak izaten ziren, ez zuten beste izenik.

12- *Zein diru sarrerek zituen ikastolak?*

Haur bakoitzeko kobratzen zuenaz mantentzen zuen Elbirak ikastola, baita bere soldata lortzen ere. Hori zen diru sarrera guztia eta gainera dirua hamar hilabetetan bakarrik jasotzen zuen. Udarako bi hilabetetan ez zuen klaserik ematen eta ez zuen kobratzen; ez zegoen paga estrarik ez eta besterik ere. Ikasleekin lortzen zuen diru horrekin bere etxe-ko errenta ordaintzen zuen eta bere soldata ateratzen zuen. Gu ere bera bezala ibiltzen ginen. 1957. urtean nik 125 pezeta ikasleko kobratzen nuen hilabetero, eta hau, Elbirak berak diru kopuru hori kobratzen zuelako. Ez zegoen beste dirulaguntzarik edo subentziorik; ez genuen diru gehiago edo diru estrarik lortzeko kanpainarik egiten ere. Elbirak ez zuen inoiz ikastolarako prestamori eskatu. Ez zuen noski Seguritate Sozialarik, berak autonomoetan kotizatzen zuen.

13- *Ikastolak barne arautegirik alzuen?*

Elbiraren ikastolan ez zegoen zehazki eta ofizialki definitutako arautegirik. Ikastola bere etxean zegoenean, ez zuen araudi bat inposatuko zion guraso batzorderik. Berak bere metodoa jarraitzen zuen eta gurasoei ondo iruditzen zitzaien. Bakarrik gauza bat: baldintza bat eskatzen zuen haurrak onartzeko eta hau Euskara jakitea zen. Hasieran nahiko gogorra edo inflexiblea izan zen, gurasoek euskaldunak behar zuten izan, baina azkeneko garaian bere ikastolan aita edo ama erdalduneko ikasleak zituela badakit.

ARLO PEDAGOGIKOA

14- *Zein ikasketak zituen Elbirak?*

Berak magisteritza zuen, karreraz maestra zen. Gainera oso emakume azkarra zen eta kezka izugarriak zituen irakaskintzaren arloan, eta frantsesa oso ondo zekienez, Frantzia eta orokorki Europa osoan argitaratzen ziren pedagogiari buruzko liburuak eta ikerketak ikasten saiatzen zen. Honetaz gain, Frantzia bizi zen ahizpa monja bat zuela uste dut, eta honen bitartez Frantzia irakaskintza maila erabiltzen ziren metodoak eta teknikak ezagutzen zituela esango nuke. Gogoratzen dut berak, Pariseko eskola piloto batean haurrak lurtean eserita txotxekin lanean ikusi zituela, komentatu zigula. Honekin lehen esan dudana azpimarratu nahi dut: bera European egiten ziren esperientzien berri edukitzeaz arduratzen zela. Gero kanpoko esperientzi hauek aztertzen zituen, bereganatzen eta birmoldatzen zituen, bere klaseak emateko. Adibidez matematika irakasteko, metodo berri eta bitxi bat erabiltzen zuen. Gaur egun tankera eta forma horiek nahiko normalak eta arruntak gertatzen zaizkigu, baina orain dela 30-40 urte, metodo hau guztiz berria zen eta berak ekarri zuen Donostiara eta Euskadira.

Esan behar da bestalde, Elbirak haur atzeratuekiko kezka handia zeukala. Urte azkoz Migel Maria Egia klaseak eman zizkion. Migel Maria pertsona atzeratua edo mongolkoa da eta Elbirak egunero klasea ematen zion. Euskara, Frantsesa, Gaztelera eta kultura orokorra irakatsi zion. Matematiketan aldiz, ez zuen gauza handirik lortu. Baina berak bazuen kezka hori eta benetan gauza asko irakatsi zizkion. Gainera Elbirak esaten zuenez, berari oso ondo etortzen zitzaizkion klase horiek, esperientzia bezala, gero beste hurrei klasea emateko, askotan klase hauetan zailtasunak eta, nola gainditu ikasten zuelako. Berak zioenez, European, pedagogi mailan, esperientzia eta ikerketa asko, lehenik haur atzeratuekin egiten ziren.

Guzti honen ondorio bezala, berak eskola bizi eta benetan aurrerakoia egiten zuen gerra ondoko Donostian.

15- *Klaseak berak bakarrik ematen zituen ala beste irakasleren laguntza zuen?*

Hasieran bera bakarrik aritzen zen klaseak ematen. Gero, ikastaro bakiotzean andereño bat hartzen zuen, bere metodoa erakusteko; urte beteko praktika zen. Azkenean andereño berri honek ikastola berri bat irekitzen zuen. Praktikako urte honetan ez genuen ezer kobratzen. Elbirak magisteritzako titulua edukitzea eskatzen zuen berarekin urteko praktikak egiteko. Esaten zuenez, titulua ez zuen gauza handirik ematen baina beharrezkoa zen. Ondo gogoratzen dut, beregana joan nintzenean «unas malas maestras españolas» ginela esan zidala eta arrazoi osoa zuen, zeren eskolan ikasitako pedagogia oso atzerakoia zen eta nahiz euskaldunak izan, ikasketa guztiak gaztelaniaz eginak genituen. Horrela, praktikako ikastaro horretan berak erabiltako metodo aurrerakoia ikasten genuen.

Donostian ireki zen lehenengo ikastola Elbirarena izan zen. Bera da ikastolaren mugimenduaren ardatza eta beregandik ikasi dugunok, berak animatu eta bultzatuok, ikastola Donostiara eta Euskadira zabaldu egin genuen.

1950. urterako Elbirak bere etxeko ikastola irekia zuen. Garai hartan beste bi andereño lanean aritzen ziren: Itziar Arzelus eta Faustina Karril. Bi hauek 3 eta 4 urteko aurrak zituzten. Itziarrek magisterioko titulua zuen, Faustinak ez, baina haurrekin oso atsegina zen. Haurrek 5 urte betetzen zituztenean, Elbirarengana joaten ziren. Itziar Arzelusek, ikastola Puerto kalean ireki zuen, Faustina Karrilek, Virgen del Coro-n zuen berea.

Urte batzu beranduago, 1953. urtean hain zuzen, Karmele Esnal andereñoak Elbirarekin urte beteko praktikak egin zituen, hauek bukatu eta gero Donostiako Buen Pastoreko enparantzan ikastola zabaltzeko. Handik, Amara auzora pasa zen, «Santo Tomas Lizeoa» izango zenaren oinarria sortuaz. Esnalekin batera praktikak egiten Jone Forkada, Txillardegiren emaztea, aritu zen, baina honek irakaskuntzaren munduan denbora gutxi eman zuen.

1956. urtean nik egin nituen praktikak Elbirarekin eta urte bat beranduago, Donostiako Kaian, lehenengo zerbakian, hasi nintzen lanean. 1957. ean, Mari Karmen Lasartek praktikak egin zituen eta ikastola «Calle Angel»-eko bere etxean ireki. 1960. ean, Conchi Beitiak, gero Pasaiaiko ikastola eratu zuena. 1961. ean, Arantxa Arrazolak praktikak egin zituen Elbirarekin, eta urte bat beranduago, Donostiako Campanario kalean ikastola zabaldu zuen. 1962 urtean, Maritxu Marizkurrenak; Hernaniko «Urumea» ikastola ireki zuen gero. 1963. urtean, Izaskun Busto, Juan Jose Prado kalean ikastola zabaldu eta gero «Santo Tomas Lizeo»-ra igaro zen. 1964 urtean Koro Aldanondok eta Miren Terese Alemanek egin zituzten praktikak. Lehenengoak, Konstituzio enparantzan ireki zuen ikastola urte bete beranduago; Miren Teresek, Añorgan eta Antiguon ematen zituen klaseak, batean goizean eta bestean arratsaldean. 1965 urtean, Arantxa Mendizabalek egin zituen praktikak, gero Lasarteko ikastola eratzeke. Eta 1968. urtean Begoña Goya, Hernaniko Ikastolara lana egitera joan zena.

Nerekin ere zenbait andereñoak praktikak egin zituzten eta gero Goiherri aldean ireki zituzten ikastolak. Hauen izenak eta herriak emango dizkizut:

1965. urtean, Nekane Iturbek, gero Elgoibarren ireki zuen ikastola

1965. urtean, Feli Etxeberriak, Lazkaoko ikastola

1966. urtean, Iñake Irastortza, Beasaingo Ikastolan hasi zen lanean

1966. urtean, Maritxu Illaramendik, Añorgako ikastolan jarraitu zuen.

16- *Nola lortzen zituen Elbirak bere ikasleak?*

Mundu guztiak bera ezagutzen zuela uste dut nik; oso ezaguna zen eta benetan haurrak bere ikastolara eramateko eskaera ugari izaten zuen urtero. Baina esan dugunez, hamarreko taldeak besterik ezin zituen egin, eta ikasle asko kanpoan gelditzen zen. Orduan neregana eta beste andereoengana bidaltzen zituen.

17- *Zein zen ikasleen gizarte maila?*

Era guzietako jendea zegoen, baina behar bada, erdigo maila batetara hurbiltzen ziren gehiago, baina erdi-go maila jakintzaren aldetik batez ere. Garai hartan, euskal kulturaz eta euskal irakaskintzaz euskaldun ikasiak, hau da, nolabaiteko kultur maila erdikoa edo goikoa zuten euskaldunak arduratzen ziren. Honek ez du esan nahi, ekonomiko aldetik denak goi mailakoak zirenik edo goi mailakoak behar zutela izan, hori ez zen Elbiraren ikastolara joateko baldintza bat. Intelektual mailan edo jakintza mailan, goi mailakoak ziren ikasleen gurasoak, euskal kulturaz arduratuak, baina esaten dudan bezala, honek ez zuen esan nahi ekonomiko mailan, maila altuko haurrak zeudenik. Denetatik zegoen eta gainera bat edo beste ordaintzeko aukerarik ez zutenak, ordaindu gabe aritzen ziren Elbirarekin.

18- *Zenbat ikasle zituen?*

Berak bi txanda egiten zituen; guk hiru egiten genituen bezala berak bi eta hau arrazoi batengatik: bere etxean ikasleekin hasi baino lehen, esandako Migel Mari Egia mutiko atzeratuaren etxera joaten zen hari klasea ematera. Klase hau bukatu eta gero, ikastolako lehenengo taldea hartzen zuen eta arratsaldez beste taldea. Guztira 20, 10 goizez eta beste 10 arratsaldez.

19- *Zein hizkuntzatan ematen zituen klaseak?*

Euskaraz, dena Euskaraz. Ume heldutxoei Gaztelania irakasten zien, erdal eskoletara joateko.

20- *Zein materiala erabiltzen zuen?*

Liburuak bazeuden baina aukera gehiegirik ez zegoen. «Xabiartxo» liburua zen bat, baina urte askoz liburudendetan erosi ezin zenez, anai-arreba zaharrek gazteei utzita edo makinaz kopiatua edukitzen zuten ikasleek. Noizbehinka ipuin libururen bat ateratzen zen; «Itun Zaharra» eta «Itun Berria» ere Euskaraz bazeuden. Dena den, berak arto esaten zuen eskolarik onena, ederrena eta aberatsena, libururik gabe egiten zena zela, hitzez, ahoz egiten zena eta horretarako irakasleen prestakuntza handia eskatzen zuen. Nik ikastolarentzat onuragarria izan dela pentsatzen dut: libururik ez zenuen, horregatik materiala bilatu behar zenuen, mila lan prestatu eta honek irakaslea mugierazi egiten du.

Bestela berak, txotxak erabiltzen zituen idazketa irakasteko, kanikak matematikak irakasteko, urdin-gorri margoetako arkatzak, marragabeko blokak, haurrak lanak txukun egiten ohitu zitezen.

21- *Zeintzuk ziren irakasten zituen mailak eta zein irakasteko metodoa?*

5-6, 6-7, 7-8, 8-9 urtekoak, hauek ziren orduko mailak; hau da, lau kurtso. Bederatzi urtekin ikastola bukatzen zuten, erdal eskoletara ingresoko kurtsoa egitera joaten zirelako.

Txikienak, lehenengo bi kurtsoak, arratsaldean edukitzen zituen eta heldutxoena goizez. Goizeko hau, ordubetez luzatzen zen, Gaztelania landu behar izaten zutelako, haurrak erdal ikastetxetara joateko prestatu behar zituelako.

Talde hauei guk lehenengo maila, bigarren maila, hirugarrena eta laugarrena deitzen genien.

Esan dugun bezala haurrak Elbirarengana 5 urtekin heltzen ziren. Elbirak 5-6 urteko haur hauei, lehenengo kurtsokoei beraz, idazketa eta irakurketa irakasten zien, hizki etenak edo maiuskulak erabiliaz. Eta hau txotxen bidez irakasten zien, haurrak jokoan baleude bezala. Esaten zuenez, haurrek «AMA» hitza oso gustokoa dute, horregatik «M» zuten hitzekin hasten zen. Berak arbelean irudi bat egiten zien eta azpian, hizki etenaz «AMA» idatzi; neska-mutilek, lurrean eserita txotxekin amaren irudia egin eta «AMA» idazten zuten. Urrango hitzak «M»-ren konbinaketak izaten ziren, «UME» eta horrelakoak. Izkiak ondo menderatzen zituztenean, arkatzarekin blokean egitera pasatzen ziren. Gurasoak asko harritzen ziren haurren lehenengo blokaren txukuntasuna ikustean, baina noski, horren atzean beste prozesu luze bat zegoen, aipatutako txotxena hain zuzen.

Ahokatzeari eta abesti eta olerkiei garrantzi handia ematen zien Elbirak. Berak, hizkuntzaren aberastasuna olerki eta abesti ederretan aurkitzen zela esaten zuen, neska-mutilen Euskara aberasteko horrelakorik ez zegoela. Horregatik bere ikasleek ehun abesti baino gehiago zekizkiten. Kantak oso ondo aztertuak zituen eta lehenengo kurtsokoei abesti mota batzu irakasten zizkien eta heldutxoagoei beste batzu.

Matematiketan, hasieran gauza konkretuekin saiatzen zen. Imajina dezagun egun hartan ikasle baten urtebetetzea zela eta goxokiak eraman zituela ikastolara, ba asmakilo pilo bat asmatzen zituen goxokiekin egiteko; edo kandelakin, kandelak itzali eta kandelak pistu eta era honetan batuketak eta kenketak egiten zituen. Gauza bera, txoriekin edo sagutxoekin edo txalupekin; esan dudana, hasieran matematiketan gauza konkretuak, abstrakzioa, zenbakiak gero zetozen.

Bigarren kurtsoko haurrak, 6-7 urte bitartekoak, irakurketan eta idazketan iaizten ziren; matematiketan, hamarrekoak ikasten zituzten eta 99 zenbakira bitarteko batuketa, kenketa eta biderketak egiten zituzten.

7-8 urtekoek, ehunekoak, milakoak, zenbaki guztiekin ariketak eta asmakiloak egiten zituzten. Irakurtzen eta idazten oso ondo zekiten eta horregatik konpresioa edo ulermena zen lantzen zena.

Kurtsu honen bukaeran Gaztelera irakasten hasten zen. Gaztelera irakasteko ipuin politak hautatzen saiatzen zen. Aurora Medinaren «Cuentos, Juegos y Poesías» liburua asko erabiltzen zuen, oso egokia zela ikusi zuelako eta apaiz batzuren laguntza lortu zuen liburua euskaratzeko, ez hitzez hitz noski, onomatopeia desberdina eta beste xehe-tasunak kontuan hartuko zituzten pertsonen laguntza lortu zuen. Horrela Don Jesus Gaztañaga eta Don Manuel Lekuonaren eskuz, «Txuri eta Gorri eta Kikiriki» ipuin liburua argitara azaldu zen. Elbirak hauxe esaten zuen: haurrek pozik eta gogoz irakur dezaten lortu behar dugu.

Azkeneko kurtsuan (8-9 urte) erdal ikastetxeetara joateko ondo prestatu behar guten ikasleak. 9 urtekin haurrak erdal eskoletara joaten ziren ingresoko kurtsua egitera. Kurtsu hau bukatzen zutenean, ingresoko azterketa egiten zuten Batxillergoa egitera igarotzeko. Gainera, gaztelaniar eskolek gure umeei azterketa bat egiten zieten onartuak izango ziren erabakitzeko.

Ezagutza mailan ez genuen inongo arazorik. Gure ikasleak oso ondo prestatuak joaten ziren geografian, matematiketan eta abarrean. Hau askotan esan digute. Neri konkretuki, Marianistetako zuzendariak esan zidan ikastoletako haurrak oso ondo prestatuak joaten zirela, eta bereziki matematiketan. Baina gure kezka hizkuntza zen; ez genuen nahi,

hizkuntza aitzakizat hartuz, gure umeak onartuak ez izatea. Pentsa ezazu, ingresoko azterketan eskatzen zuten ortografia, gaztelaniar ortografia noski, oso zorrotza zela. Dena den, ondo prestatuak joaten ziren eta ez genuen arazo berezirik izaten.

22- Elbirak irakasten zituen mailak ikusi eta gero, hitzegin dezagun piska bat bere irakasteko eraz eta filosofiaz.

Elbirak eskola bizia egiten zuen. Berak esaten zuen, beretzat garrantzi handia zuela ikastolan etxeko giroa jarraitzea; orduan bere ikastola etxe bat zen eta edozein momentuan haurrak hartu eta sukaldera eramaten zituen; bere eskola bizia zen eta umeek gauzak ikusi egiten zituzten. Berak esaten zuena, haurrak kafe-esnea nola egiten den ikusi eta jakin behar du eta ikasleen aurrean, bere etxeko sukaldean, kafea hartzen zuen, errotatxoarekin txikitzen zuen eta egiten denen bistan. Gauza bera, ura lurrin nola bihurtzen den erakusteko, sukaldean ura egosi egiten zuen.

Ostegun arratsaldero, ikasleekin Gaztelura igotzen zen. Paseoa eta haizea hartzeaz gain, gauza pilo bat irakasten zien ibilaldi hauetan. Jo dezagun bidean barekurkulo bat aurkitzen zuela ikasleren batek, ba Elbirak barekurkuloa zer den, zer jaten duen, non bizi den... azaltzen zien. Udazkena baldin bazen «osto txapelketa» egiten zuten: ea nork aurkitzen zituen ostoa gehiago, ostoa horien igaliak zeintzu diren aztertu, zeintzu dira ostoa galtzen dituzten zuhaitzak, zeintzu ez, eta abar, Beste joko-ariketa, Donostia ikasi: Donostiak ibaia du, zer den ibai bat adierazi, edo lurmutur bat, edo Ugarte bat zer den argitu. Kaira joan eta arrantzaleen zereginak ikusi, Donostiako azoketara joan eta barazkiak ikasi... Tankera honetako ekintza bat burutu eta gero, ikastolan gaiari buruzko lantxo bat egiten zuten. Ikusi daitekenez, eskola bizia zen, kontzeptuak eta jakingaiak begietatik ere sartzen ziren, ez zen bakarrik buruz ikasitako gauza bat.

Matematiketan ere, lehen ikusi äugun bezala, ez zen gauza abstraktoekin hasten. Hasieran ariketak, sagutxoak edo goxokiak... zenbatzen eta kentzen egiten zituen. Gero kaniken bidez irakasten zuen. Kaniketan, bateko balioa dutenak, hamarreko balioa dutenak, ehuneko balio dutenak bereizten dira. Haurrak esku batean, bateko balioa duen lau kanika hartzen ditu eta bestean hiru; gero batutzen ditu eta zazpi dituela kontatu. Hamar bateko baino gehiago biltzen baditu, hamar bateko hartu eta hamarreko balioa duen kanika batengatik trukatzeko du. Metodo honekin, batuketak, kenketak... egiten dira. Gero kanika hauek bloketan marrazkien bidez adierazten dira eta azkenik zembakietara igarotzen da. Guzti hau lurrean eserita, kantuen bidez; gero bloketan kanikak margo ederrez apaindurik, dena joko giro batean (36).

Beste arlo garrantzitsua erligioa zen. Bera oso erligiozalea zen, asko bizi zuen erligioa, eta heziketa osoa izateko, erligioa ere irakatsi behar zela zioen. Ez zuen erligiozko klasea ematen baina bere ikastolan erligioa bizi egiten zen. Adibidez, ikasle baten anai-arrebaren bat bataiatu bazuten asteburuan, ba bataioa esplikatuko eta bizi ere egiten zen eta berdina gertatzen zen norbaiten senidekoa hiltzen bazen. Berak esaten zuen otaitza ez zela Aita Gurea bakarrik esatea, Gaztelura igo eta handik ikusten ziren gauza ederren-gatik Jainkoari ezkerrek ematea baizik.

Haurrentzat elizkizunak antolatzen zituen baita ere, eta hau ez zen oso erreza. Garaian, herri txikitetan bai, baina Donostian Euskaraz ez ziren mezak ematen eta jaun-

(36) Matematikak irakasteko era, «Orixe» ikastolan ikusteko aukera izan nuen, Mertxe Jauregi Andereñoaren ikasgelan, 1988. urteko azaroan. Haurrak eta andereñoa lurrean eseritzen dira, borobil bat osatuz. Andereñoak ikasle bati batuketa bat egin dezan, «8+4» adibidez, eskatzen dio. Honek, bere aldamenean aurkitzen diren bi lagunak jokoan jartzen ditu. Lehenengoari, buztinezko kanikaz betetako otartxo bat ematen dio. Kanika hauek, bateko balioa dute, «batekoak» dira, alegia. Bigarrenari beste otartxo bat ematen dio,

tzeak gutxiago. Orduan jaunartzeak Santa Teresako Elizan antolatzen genituen eta igande batean Karmele Esnalen haurrek egiten zuten Jaunartzea eta urrengoan adibidez Elbirenarenak eta beste batean ba nereak... Beneditarrak etortzen ziren Lazkaoit meza hauek ematera. Sendotzak noizbehinka egiten ziren. Horretarako misioetatik etortzen zen kaputxino misiolari gotzaireren batekin jartzen ginen harremanetan. Gogoratzen dut, behin Sendotza prestatu genuela Artikutzan; ustez baimena guztiak lortuak genituen eta azkeneko momentuan debekatu ziguten. Benetako frustrazioa izan zen.

Egia esan, Elbirak erligioari garrantzi handia ematen zion eta nik uste, baita ikasleen gurasoek ere.

23- Orain arte aztertu dugun egoera honek noiz arte irauten du?

1968-1969 ikasturterarte. Urte bat lehenago, hau da 1967-1968 ikasturtean arazo gogorak izan genituen: «Cartilla de Escolaridad» hasi ziren eskatzen, polizia gure pisuetara joaten zen han zer egiten zen ikustera. Esan dudana bezala, ikasturte hartan nik kaian nuen pisuan oso klase gutxi eman nituen, polizia maiz joaten zelako. Guk ezin genuen «Cartilla de Escolaridad» eman. Lehen ez zuten honelako dokumentaziorik eskatzen; gurekin haurrak 9 urte bete arte egoten ziren eta gero erdal ikastetxeetara igarotzen ziren ingresoko kurtsoa egiteko eta han ez zieten «Cartilla» eskatzen, esamin bat besterik ez zieten egiten, baina urte horretan «Cartilla» beharrezko gauza bat bihurtu zen. Orduan guk tranpa nahikoa eginez gaudituz genuen urtea: adibidez Aian bazen gure adiskide irakasle bat eta hark gure ikasleen izenekin bi edo hiru «Cartilla» egiten zizkigun, eta Donostiako beste ikastetxeko irakasle batek, ba bi «Cartilla» lortu zizkigun... Baina noski, egoera hark ez zuen inongo iraupenik. Ikastola batzuz, Elizaren babespean legeztapenaren bidean jarriak ziren eta «Cartilla de Escolaridad»-en beharra inposatuko zela ikusi genuen; argi zegoen guk zerbaite egiten ez bagenu ikasle gabe geldituko ginela.

kristaleko kanikaz beteta, hamarreko balioa dutenak. Umeak, hasteko, buztinezko zortzi kanika, hau da, zortzi «bateko» hartzen dizkio lehenengo lagunari, eta gero beste lau. Batuketa egiteko, kutxatila bat erabiltzen du. Kutxa honek, bederatzia bahogunez osatutako bi lerro ditu. Kanikak, eskubiko lerroko bahogunetan jartzen ditu. baina bederatzia direnez, ezin ditu «bateko» guztiak sartu, soberan dituelako. Orduan trukatu egin behar ditu: bigarren lagunarengana hurbiltzen da eta kristalezko kanika bat («hamarreko» bat) hamar «batekoen» truke eman diezaion eskatzen dio. Orain umeak, kristalezko kanika bat eta buztinezko bi ditu. Kristalezkoa, kutxatilako ezkerreko lerroko bahogune batean sartuko du eta buztinezko biak, eskubikoetan. Trukaketa gehiago egin behar ez duela ikusiko du, ariketa bukatua dagoela konturatuz. Trukaketa egiten den unean, klase guztiak honoko abesti hau kantatzen du:


«Dendan Andre Joxepa,

Trukatzen kanikak eta,

Hamarreko polita

Hauen truk eman badeza»

Deskribatutako ariketa. gero blokean adierazten da, horrela:



Legeztazioaren bidea beharrezkoa zen. Elbirari ez zitzaion batere gustatzen; ikastolaren eta Euskararen eskubideak galeran aterako zirela pentsatzen zuen berak, baina egia esan ez zegoen beste irtenbiderik. Horrela Miren Terese Aleman, lehen Antiguoa eta Añorgan ari zena, Koruko Aldanondo, Konstituzio Plazan zegoena, Elbira eta laurok bildu ginen eta «Orixe» ikastola eratzea erabaki genuen. Garaian esan ditudan arazo eta oztopoak gainditu eta legeztapena lortzeko bide bakarra, Elizaren babesa hartzea zen. Orduan, Donostiako Santa Maria elizara jo genuen; parrokoaren laguntza jaso eta bera jarri genuen ikastolaren titularra bezala. Berak bere izena eman zuen, bera titularra bezala agertzen zen eta guk gure tituluak jarri genituen. Santa Maria elizaren atzelaldean zeuden ganbara zahar batzutan sartu ginen. Lokalak eta obrak gurasoek ordaindu zituzten. Gogoratzen dut 1968. urtean, 800.000 pezeta kostatu zitzaizela eta hura ez zen gutxi garai hartarako. Lokal hau Santa Maria elizaren atzelaldean dago, «Sociedad Gastronomica» ondoan.


«Orixe» ikastolaren lokalak konpontzen eta ikastolaren legeztazioa itxaroten igaro genuen 1968-69 ikasturtea. Hau bukatzen ari zenean, ekainean, inspektorea etorri zitzaigun, ikastola eta haurrak ikustera, legeztapenaren baimena emateko. Benetan oso gogorra izan zen. Gogoratzen dut lehenik nere klasera etorri zela eta izugarrizko azterketa egin ziela. Nere hurrekin hiru ordu egon zen. Jakintzaren maila aztertzeko proba asko egin zituen, gero garaian «Formación del Espíritu Nacional» zelakoa aztertzeraz igarotzeko. Benetan gogorra gertatu zen azkeneko hau. Nik 9 urte bitarteko neska-mutilak nituen eta han ibili zen galdezka «¿Cual es tu Patria?» eta ikasleek «Mi Patria es Euskadi», eta «¿Conoces alguna bandera?», «¿Conoces el escudo de España?». Bai, oso gogorra izan zen. Inspektorearen konklusioa zera izan zen: jakintzaren aldetik eta pedagogiaren aldetik umeak oso ondo prestatuak zeudela, baina politikaren aldetik desastre bat zela. Ni, hura gure arazoa ez zela argitzen saiatu nintzen, politika gurasoen gauza zela eta orokorki egoerarena. Pentsa, egun hartan bertan, Ikurriña agertu zen Gazteluaren tontorrean eta haurrak ikastolara etorri baino lehen, gehienak joanak ziren ama edo aitarekin ikustera; noski, arazo guztia testuinguru horretan kokatu behar da. Urrengo egunean, berriro ere ikastolara etorri zen eta Elbiraren klasean aritu zen; han okerrago izan zen. Guzti hau eta gero, irakasleok jota bukatu genuen, ondo gogoratzen dut zein nolako negar saioa egin genuen, ikastola itxi egingo zigitela pentsatuz. Berehala, ikastolako gurasoen juntakoak, Xabier Aizarna, Diputatu Nagusia izan dena eta «Orixe» ikastola sortzen ari zen momentu hartako ikasle guraso haiek, parrokoarekin bildu ziren eta lehen bait lehen inspektorearengana joatea erabaki zuten, ea ikastola bateko inspektzioa edo poliziaren inspektzioa izan zen galdetzeraz. Badakit, ikuskatzaileak berriro ere, neska-mutilak didaktikaren aldetik oso ondo prestatuak zeudela baina politikaren aldetik desastre bat zela, adierazi ziela. Gurasoek, hori bere ardurapean hartzen zutela erabaki zuten. Eta legeztapena ukatuko zigitela espero genuenean, ikastola zabaltzeko baimena iritsi zitzaigun.

Horrela, era honetan, lau andereñoek hasi ginen «Orixe» ikastolan, 80 bat umeekin. Hasieran, lehen bezala, 9 urte arteko hurrekin, plangintza berrian, 3^o basika arte, Gero, poliki poliki hasi ginen basikako laugarren kurtsoa eransten, gero bostgarrena. Bostgarren kurtsoa arte, urte askoz egon gara, gure ikasleak gero «Barandiaran Lizeora», igarotzen bait ziren, basikako bigarren aroa egitera. Orain ez, orain «Barandiaran Lizeoa» BUP-eko zentroa da eta guk Basika osoa ematen dugu; hau, orain dela 6 ikastaro..

24- *Azkeneko galdera egingo dizut. Zein urtetan utzi zuen Elbira Zipitriak ikastola?*

Elbirak 1971. urtean utzi zuen «Orixe» ikastola.

AGIRI GRAFIKOAK
(documentos gráficos)

BATAIO - AGIRIA / CERTIFICADO DE BAUTISMO	
BATAIATUA / DATOS DEL(A) BAUTIZADO(A)	
SAN PEDRO parrokia / parroquia	Elbira - Justa Cipriña Irastorza
De NOSTIA elizbarrutia / diócesis	izen-deiturak / nombre y apellidos
ELMAIA herria / población	JAIOTZA nacimientu
GIPUZKOA probintzia / provincia	28 Maiatza / Mayo 1906
liburua / libro 11	fabrika de cemento de Torres
orria / folio 101V	kolea-etxea / calle-casa
zenbakia / número 39	izen-deiturak / nombre y apellidos
BESTE ZEHAZTASUNAK OTROS DATOS	BATAIOA bautismo
	30 maiatza / mayo 1906
	bataio-eguna / fecha del bautismo
	D. Juan Jose de Echeverria
	bataiatzailea / ministro
	SENITARTEKOAK / DATOS FAMILIARES
	AITA / PADRE
	Jeanito Cipriña A.
	izen-deiturak / nombre y apellidos
	Villabona
	jaioterria / lugar de nacimiento
	AITON - AMONAK / ABUELOS
	Juan Bautista
	aitonaren izena / nombre del abuelo
	Andrain
	jaioterria / lugar de nacimiento
	Martxelena
	amonaren izena / nombre de la abuela
	Villabona
	jaioterria / lugar de nacimiento
	AMA / MADRE
	Maria Irastorza
	izen-deiturak / nombre y apellidos
	Tapia
	Lazcano
	jaioterria / lugar de nacimiento
	AITON-AMONAK / ABUELOS
	José Joaquín
	aitonaren izena / nombre del abuelo
	Lazcano
	jaioterria / lugar de nacimiento
	Frañcesca
	amonaren izena / nombre de la abuela
	Villabona
	jaioterria / lugar de nacimiento
	AITA-AMABITXIAK / PADRINOS
	Gualberto Arancagua
	aitabitxia / padrino
	Elvira Arancagua
	amabitxia / madrina
	Artxibo-arduradunak
	Arturo Eustak Urveto
	El encargado del archivo
	izen-deiturak / nombre y apellidos
	AITORTZEN DU agiri hau bat datorrela ertzean aipatzen den liburuan dagoenarekin.
	CERTIFICA que estos datos coinciden con los del acta reseñada al margen.
	Elbira 11 urtarril / enero 1988
	idatzeguna / fecha de inscripción
	(Sinadura eta sellua / Firma y sello)
	Arturo Eustak
(Beste Elizbarrutietarako / Para otras Diócesis)	
Gotzaitagia	
Obispado	
Bikario Nagusia / Vicario General	
	
Inuzia eta Tutera, Bilbo, Donostia eta Gasteizko Elizbarrutietarako onartua izan den agiri-eredua Modelo aprobado para las Diócesis de Pamplona y Tudela, Bilbao, San Sebastián y Vitoria	

ELBIRA ZIPITRIA IRASTORZAREN BATAIO-AGIRIA
Certificado de bautismo de Elbira Zipitria Irastorza



san sebastián

escuela universitaria de magisterio de guipúzcoa
gipuzkoako irakaslegoaren unibertsital eskola

donostia

DONA MARIA ANGELES VICENTE MERINO, JEFE DE NEGOCIADO DE LA ESCUELA UNIVERSITARIA DEL PROFESORADO DE E.G.B. DE SAN SEBASTIAN

CERTIFICA: Que según los documentos originales que obran en esta Secretaría, DONA ELVIRA CIPITRIA IRASTORZA, cursó y aprobó como alumna oficial, los 4 años de la Carrera de Maestra de Primera Enseñanza, Plan 1914, durante los cursos 1922-23, 1923-24, 1924-25 y 1925-26 , finalizando los mismos en Mayo de 1926.

Hizo el depósito del Título el 2 de Diciembre de 1968, quedando registrado en el Libro de Títulos nº2 de esta Secretaría , nº de orden 1.015 del folio nº139.

Y para que así conste, se expide la presente en San Sebastián a veintiseis de Enero de mil novecientos ochenta y nueve.

LA JEFE DE NEGOCIADO,



eman ta zabal zazu

universidad del país vasco - euskal herriko unibertsitatea

GIPUZKOAKO IRAKASLEGOAREN UNIBERTSITAL ESKOLAREN ARTXIBATEGIKO DOKUMENTAZIOA:
Documentación del archivo de la Escuela Universitaria de Magisterio de Guipúzcoa:

1. Idazkaritzak zabaldutako zertifikatua.
1. Certificado de la Secretaría General.

Don Elias Oroshe y Surribia, Juez municipal
y encargado del Registro civil de esta villa de Zumaya

CERTIFICO: Que en el cuaderno trece, Sección de nacimientos, del
Registro civil de mi cargo, al folio veintiseis, aparece el
acta que a la letra dice así:

NÚMERO 46 En la villa de Zumaya
Elvira Justa a las once de la mañana del día veintinueve
Epitria e Iras- de Mayo de mil novecientos seis,
torra ante D. Don Maria Olaveria, Juez mu-
nicipal, y D. Fernando Erucha, Secre-
tario, compareció D.º Francisco Cuenca na-
tural de Zumaya, provincia de Guipúzcoa,
de edad de treinta y siete años, de estado casado, su ejer-
cicio abogado, domiciliado en la Plaza Mayor
N.º 1, según acredita por cédula personal que
exhibe, expedida por la Alcaldía de esta villa

solicitando que se inscriba en el Registro civil un niño, y al efecto, como vecind
de la misma, declaró:

Que dich. niño nació en casa de sus padres
el día veintiseis de Mayo a las una
de la madrugada

Que es hija legítima de D.º Jacinto Epitria,
natural de Villabona, provincia de Guipúzcoa
de edad de treinta y seis años, de profesión forastero
y de la María Irastorza,
natural de Larcaos, provincia de Guipúzcoa
de edad de treinta y siete años, dedicada a las ocupaciones propias de su sexo
y domiciliada en el de su marido.

Que es niel o. por línea paterna de su Bautista Epitria

I-922.

2. Elvira Zipitriaren jaiotza agiria.
